



SLAVOJ ŽIZEK

«Europar sinestuko
dute euskaldunek
Espainiaren
bitartekaritzarik
gabe parte hartzen
duguenean»

- **Anari:** «Askotan sentitu dut nik niretzat ez nituen parametroetan analizatu nautela»
- **Joseba Zulaika:** «Arma nuklearren auzia konpondu ezean, terrorismo arriskuak beti iraungo du»
- **Isabel Cristina Pardo:** «Álvaro Uriberekin inoiz baino okerragoa da Kolonbiako preso politikoaren egoera»
- **II. Mundu Gerra**
- Francoren aurkako ihesi, Hitlerrekin topo
- **Larrun** Ekaineko notak Lopezen gobernuari

argia

Hegoafrikan



Lander Arbelaiz
bestelako begirada

www.argia.com/hegoafrika



Artikuluak egunero

- Lander Arbelaiz Hegoafrikatik
- Joxemari Ostolaza
- Agin Rezola
- Juanjo Ollasagarre
- Bilardo

Multimedia


- Bideo, diaporama, argazki eta jokaldirik onenak

Historia

- Apartheidetik Munduko Kopara kronologia

Twitter leihoa, irakurlearen txokoa, hemeroteka...

 **argia.com**



The screenshot shows the 'argia.com' website with a focus on the 'Hegoafrika' (South Africa) section. The header includes the site name and a 'Berriak' (News) tab. Below the header, there's a main image of soccer players celebrating. A sidebar on the left lists various topics: 'Hegoafrika', 'Zer da hau?', 'Apartheidetik Munduko Kopara', 'Albisteak', 'Eztabak', 'Egunero', 'Futbola', 'Multimedia', 'Irakurlearen txokoa', and 'Hemeroteka'. The main content area features several articles, including 'Eskainaren 238k aurerra' (238k likes ahead), 'Cape Town' (Cape Town), and 'Mundua interesatuta' (World interested). On the right, there's a 'JARRAITU KANALA' (Follow channel) section with social media links for Facebook and Twitter, and a 'Bideoak' (Videos) section with a video player showing a soccer match.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olaso. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Deabruaren abokatua

- **Maider Egues:** «Orduak beharko nituzke erlatibitatearen teoria azaltzeko». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- 1940: Eskual Reicha. JOSU CHUECA / 5

Pertsonaia

- **Slavoj Zizek:** «Unibertsaltasunaren indarra zuek zarete, euskaldunak, ez Espainiako Estatu». GORKA BEREZIARTUA / MARKOS ZAPIAIN / 10

Gaiak

- **Isabel Cristina Pardo, Kolonbiako preso politikoekin lanean:** «Armadak argi du nola jokatu gerrillari bat ikustean: erail eta desagerrarazi». IRANTZU PASTOR / 17

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Arantzez. IXIAR ROZAS / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 21
- **Bakardadeaz.** AINHOA LARRAÑAGA / 22
- **Txandan** Katuen... JOSEBA BARANDIARAN / 22
- **Sexu bidezko gaixotasunak berriz hemen.** FELIX ZUBIA OLASKOAGA / 23
- **Hiruko txikian** Azken dantza. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Potosiko minak. MIKEL ARRILLAGA / 24

Erdiko kaiera

- **Anari:** «Euskaraz edozer sor daitekeela ikusaraztea da gure belaunaldiaren ekarpen handiena». IKER BARANDIARAN / 25
- **Melodiaren diktadurari aurre egiten.** UNAI BREA / 28
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** MIKEL GARCIA / 33
- **Ihesi Etxarri-Aranatz.** Etxarritik Etxarrira, arbasoen bidetik. GONTZAL AGOTE / 34
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **Joseba Zulaika:** «Kontraterroistari dena iruditzen zaio eromena, kriminalitatea eta tabua». MIEL A. ELUSTONDO / 41
- **Bikoizketa euskarara.** Haurrak ohitu dira, helduak ez. MIREN IBARLUZEA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Nigeriako oiha eta soroetan datzate 50 'Exxon Valdez'. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Tircpihmi.** GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 50



“Orduak beharko nituzke erlatibitatearen teoria azaltzeko”

Maidier Egues | Teknokrata

Eraginkortasuna beste edozein faktoreren gainetik jartzen du.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Hara, gerra korrespontsala izan nahi zuena!

Kar kar kar! Bai, horixe zen nire gaztetako ideia, ideala, ametsa... Baina ikusten duzu...

On aurpegia duzu, Maidier, hauts eta tiro artean ibiltzeko...

Emozioak gustatzen zaizkit, eta hortik zeto-
ren kontua... Orain gauzak beste modu bate-
ra ikusten ditut.

ibili zinen, hala ere, munduan zehar, turismo profesionala egiten.

Ai ai ai... deabrua eta bere abokatua beti dira inbidioso hutsak. Ulertzen dizut, lasai, asko-
ren inbidia izan nintzen. Aukera eta esperien-
tzia zoragarriak izan ziren.

Orain, berriz, zientzia zalea izan ez eta Tekno- polis aurkezten?

Kazetaria naiz eta Teknopolis-eko lantaldea
kazetariz eta zientzialariz osatuta dago... Bi
perfilak gara beharrezkoak.

Hala uste dugu denok.

Gainera, kuriositatea eta zientzia-zaletasuna
oso lotuta daude eta ni oso kurioa naiz.

Arrazoi duzu, langile guztiok merezi dugu zer- bait hobea...

Hobea? Nik ez dut kexarik. Lantalde eta lan-
toki paregabeak dauzkatz, eta oso konforme
nago.

Zientziari buruzko programa da, eta inor gutxi ibiliko da adi.

Astero 55.000 ikusle. Gutxi iruditzen zaizu?

Pentsa futbol saioa balitz, zenbat sasijakintsu zenituzkeen atzetik!

Futbola zuretzat, nahi baduzu... Nik ez dut
gustuko.

Jaiak bezalako programa bat egingo zenuke berriz, edo gorputzak ez luke jada emango?

Ez gorputzak ez eta buruak ere. Amaitutako
etapa da hori, baina oso etapa polita izan zen.

Gainera, mozor guztiak galdetuko lizukete erlatibitatearen teoriak...

Bai, bai... eta hori ez da minutu batean azal-
tzen. Orduak beharko nituzke.

Bestela beti geratuko zaizu Frontón, jakin dut esperientzia “bikaina” izan zela zuretzat...

Esperientzia bikaina, bai, baina hala ere, kirol
mundua ez da nire mundua. Nahiago zien-
tzia, askoz nahiago. ■

Bigarren Mundu Gerra

1940: Eskual Reicha

Gerra zibiletik ihes egindakoek gerra handiagoa topatu zuten mugaz bestaldean. 1940ko udaberrian alemanek Frantzia osoa okupatu eta zatitu zuten, eta itsasontzia hartzeko zoria izan ez zuenak, lan-batailoietan edo Mauthausenen amaitu zuen, edo klandestinitatean, kasurik hoberenean. Ipar Euskal Herria Vichyko erregimenaren eta nazien artean harrapatuta geratu zen: “Eskual Reicharen” aroaren hasiera zen.

JOSU CHUECA

AMATATU GABE zeuden Espainiako Gerra Zibilaren txinpartak, gatazka askoz larriagoa hasi zenean: Bigarren Mundu Gerra. Orduan ere, batek baino gehiagok bi gerren arteko lotura azpimarratu zuen. Esate baterako, Espainiako Kanpo ministro izan zen Julio Alvarez del Vayok, honela zioen 1940an argi-

taratutako *La guerra empezó en España* liburuan: “Espainiako Errepublikaren porrota, oraingo gerraren abiapuntua izan da”. Zuzen ari zen diplomatiko eta politikari espainiarra. Izan ere, 1936-1939ko gerrak Bigarren Mundu Gerraren hainbat osagai aurreratu zituen, eta Espainiako gatazka mundu gerraren entsegu-

Hendaiako Bi Ur Arte etxeko jangelan nazien bandera. Soldaduen denbora-pasarako prestatu zen etxea.



HENDAYA 1940



Frantziako gudarosteko soldaduak alemaniarrei armak entregatzen 1940ko porrotaren ostean.

tzat jo izan dute historialari askok. Bi gatazka horien arteko lokarri nabarmenetako bat ditugu Pirinioez iparraldera jo zuten milaka errefuxiatuak. Jakina denez, 1936az geroztik frankisten aurrerakadaren ondorioz, erbesteratuen multzoak biderkatu egin ziren, batez ere gerraren amaiera aldean. 1939ko otsailean, frankistek Katalunia hartu ostean, adin eta klase guztietako milaka iheslarik erbestera jo zuten, Perthus, Le Boulou eta La Tour de Carol-eko pasalekueetatik.

Milioi erdi lagun inguru mugaz bestaldera joan zirela uste da. Euskaldunei dagokienez, 40.000 eta 60.000 pertsona izan zirela azaldu ohi da geroago egindako txostenetan. Kopuru horien munta zehatzari buruzko eztabaida aparte lagata, erabat objektiboa eta eztabaida ezina da Frantziako Gobernuak horien guztien aurka politika zehatza erabili zuen. Daladier gobernuburua eta Sarraut Barne ministroa ahalik eta errefuxiatu gehien espainiaratzen saiatu ziren, lehenik kontzentrazio zelaletan barneratuz. Zenbakiak zenbaki, 200.000tik gora lagunek usatu zuten espainiaratzearen aukera. Hori dela eta, horientzat kontzentrazio zelai berriak atundu behar izan zituzten agintari frantziarrek, Agden, Bramen, Rivesaltesen... 1938az geroztik indarrean zuten desbiderake-

ta errepresiboari eutsiz. Latzena etortzekoa bazen ere, errepresioaren gogortzea gero eta nabarmenagoa zen Daladierren eta Reynauden agintaldietan, 1938 eta 1940 artean, alegia. Alde batetik, dekretu batzuen bitartez, *indesirable* edo “zitalen” esparrua zigortu nahi zuten; abanikoa nabarmen zabaldu zuten, judutarrak, komunistak eta beste herrialdeetatik iritsitako errefuxiatuak zanpatzeko asmoz. Bestetik, Espainiatik alde egindakoentzat ireki zituzten kontzentrazio esparruak ugartzeaz gain, hauek gero eta latzagoak bilakatu ziren, bertan egondako askoren testigantzek adierazi duten legez.

Itunen gainetik gerra nagusi

Nazioarteko politikan, 1938ko irailean sinatutako Municheko Itunek argiro azaldu zuten britainiarrak eta frantziarrak Hitlerren aurrean makurtu egin zirela. Horri esker, Alemaniako armada Sudeteen lurraldea eskuratzen hasi zen eta geroxeago Txekoslovakia osoa hartu zuen bere menpe. Hilabete batzuren ondoren, Hitlerrek eta Stalinekin adosturikoari jarraituz, Poloniaren zatiketaren txanda iritsi zenean, Bigarren Mundu Gerra hasi zen. Jakina denez, orduan, Frantziak eta Britainia Handiak gerra adierazi zioten Alemaniari. 30 urte eskas pasa ziren Lehen Mundu Gerra amaitu zenetik, eta orduan bezala, Frantziak mobilizazio orokorra jarri zuten indarrean, gudarosteak Iparraldeko mugetara bideratuz.

Hala ere, 1914-1918ko “Batasun Sakratua” ez zen errepikatu 1939-1940ko abagunean, eskuin muturrekoek begi onez ikusten baitzuten bakea Italia eta Alemaniarekiko, baita

Frantziak, eskuin muturrekoek begi onez ikusten zuten Italia eta Alemaniarekin bakea eta itunak adostea. Ozenki zioten De la Roquek, Ybarnegarayk eta enparauek: “Hobe Hitler Blum baino”

itun politiko eta militarrek adostea ere. Ozenki zioten De la Roquek, Ybarnegarayk eta enparauek: “Hobe Hitler, Blum baino”. Nahiago zuten eskuin muturreko diktadura –nazien erregimenaren tankerakoa eta ezkertiarren aurkako harresia izanaren omen zena–, ezkerren kutsu ñimiñoena izan zezakeen edozein aginte koalizio baino.

Komunistei dagokienez, erabat nahasita eta lotuta gelditu ziren Stalinekin eta Hitlerrek gerraren bezperan egindako hitzarmenarekin. Ondorioz, egun batetik bestera, estrategia antifaxista pikutara joan zen. Izan ere, nazismoaren ikur eta buru nagusia, Hitler, euren korrontearen gidari zen Stalinen lagun bihurtu zen, eta ondorioz, ezin zuten Alemaniaren aurkako gerra sostengatu. Gainera, jarrera susmagarri horrekin, aukera galanta eman zioten Frantziako agintariei beren alderdia legez kanpo jartzeko. Eta hila-bete beranduago horrela gertatu zen: 1939ko



Ezkerrean, frantziar herritarrek alemaniarrengandik ihesi 1940ko udaberrian; Espainiako Gerra Zibilean ikusitako irudiak errepikatu ziren Frantzian. Eskuinean, soldadu naziak Miarritzen desfilatzen.

irailaren 27tik aurrera, PCF debekatzeaz gain, militanteak eta buruzagiak “zitalen” esparruan sartu zituzten. Hori dela eta, hexagonoko kartzelak eta kontzentrazio zelaiaik komunistez betetzen hasi ziren.

Gerra Bitxitik... Tximista Gerrara

Hala eta guztiz ere, gerra adierazita zegoen arren, hilabete luzez ez zen inolako borroka saiorik izan. Frantziako armada iparraldeko mugetan kokatu ostean, hor gelditu zen mugitu gabe, Maginot lerroaren babesean. Gerra Bitxia deitu zioten borrokarik gabeko gatazka aro horri. Polonian, Norvegia eta Finlandian borrokan ari ziren bitartean, Frantzian, baita Herbeheretan ere, soldaduak aspertu egiten omen ziren adierazitako guduaren zain. Jean-Paul Sartrek berak, fronteko soldadu zenean, zera idatzi zuen: “Sekula ez da izan holako gerra ikustezinik. Faltan sumatzen dut, zeren eta ez badago, zer egiten dut nik hemen?”.

Baina barealdi bitxi hori amaitu zen alemaniarrek beren armada indartsua mendebalde-

rantz begira jarri zuten egunean, 1940ko maiatzaren 10ean. Egun horretan borrokarik gabeko gatazka gerra orokor eta azkarra bihurtu zen. Armada naziak buruturiko erasoaldiarekin, *Blitzkrieg* edo Gerra Tximista abiatu zen eta 40 egunerako kanpaina nahikoa izan zuten Hitlerren soldaduek armada belgikarra zein frantziarra makurrarazteko eta Reichen agintea Berlinetik Hendaiaraino eramateko.

Gerra aspaldidanik aurreikusita zegoen arren –Maginot bezalako defentsa lerroak egin zituzten–, eraso horrek lur jota utzi zituen armada frantziarra, belgikarra eta britainiarra. Maiatzaren 10ean hasitako erasoaldia, ekainaren erdialdean amaitzear zegoen. Dunkerketik milaka soldadu britainiarrek eta frantziarrek alde egin ostean, *Wehrmacht* eta *Luftwaffe* abiada bizian jo zuten Paris aldera. Milaka frantziarrek ihesari ekin behar izan zioten ahal bezala, 1914-1918ko oroimenak berpiztutako beldurraren eraginez eta Herbeheretan alemaniarrek egindako demasien oihartzunak akuilaturik. Iparraldetik hegoal-



● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.









BIZKAIA BIZIA

dera eta ipar-ekialdetik hego-mendebaldera zihoazen herritarrek soldadu saldoak zituzten bidaide, Frantziako armadaren porrotaren lekuko.

Ihesari eman ziotenen artean Gubernua bera zegoen. Paul Reynauden taldeak Parisetik Bordelera jo zuen, eta ondoren, Philippe Petainen agindupean, Vichyra. Izan ere, egoitzaz aldatzeaz gain, Gubernua buruzagiz aldatzera behartu zuen III. Errepublikaren porrot militar-politikoak. Petain Lehen Mundu Gerrako garailea zen eta Espainiako Burgosko enbaxada utzita bueltatu zen Frantziara, militar gisa zer edo zer egiteko. Baina beranduegi izateaz gain, lehen gerran erabilitako defentsa taktikak bera bezain zaharkiturik zeuden; desgokiak eta eskasak ziren erabat, alemaniarren hegazkinerian eta panzer dibisioetan oinarritutako erasoei aurre egiteko. Mugetan eta barne aldean zeuden defentsa-lerroak gainditu ostean, alemaniarrek azkar jo zuten Sedan, Abbeville eta Paris aldera.

1918ko garaileak, 1940ko garaituak

Petainen ekimena dagoeneko ez zen militarra, politikoa baizik. Gudari zegokionez, hexagono frantziarrean dena galduta zegoen eta berak, kapitulazioaren ala armistizioaren arteko eztabaidan, bigarrenaren alde egin zuen. Hainbat politikari prest zeuden borrokari kolonietatik eusteko –Pierres Mendes France, Georges Mandel...– eta militar apur batzuk –De Gaulle nabarmenki– Afrika aldera edo Britainia Handira jo zuten; baina Petain armistizioa adosten hasi zen naziekin. Horrela, Espainiako enbaxadorea zen Jose

**Espainiatik alde egindako
errefuxiatuen kontrako neurriak
larriagotu ziren. Lan batailoien
bidez kontzentrazio zelaietatik
atera zirenak, ipar mugetara edo
Meginot lerrora bidali zituzten**

**Meginot lerroko
fortifikazioa.
Defentsa lerro
antzia suertatu
zen egitura
militar hori,
1940ko
udaberrian
alemanek erasoa
jo zutenean.**

Felix Lequericaren laguntzaz errendizioa prestatzeko lehen harremanak izan zituen Alemaniako buruzagiekin. Tratu horiek aurrera egin zuten eta laster lortu zituzten lehenengo emaitzak, nazien alde noski. Hitlerrek mendekuaren ospina das-

tatzera gonbidatu zituen agintari militar frantziarrak, 1918an Lehen Mundu Gerra amaitzeko erabili zuten tren bagoian sinatzera eraman baitzituen 1940ko bakea. Baina, jakina, orduko galtzaileak orain garaile ziren. Dena den, okerreza ez zen umiliazio hura izan, armistizioan zeuden puntuak halabeharrez onartzea baizik. Frantzia, bere

burujabetza erabat galtzeaz gain, Reichen gatibu eta morroi bilakatu zen, nahiz eta Vichyko erregimen xelebreak eskualde librean jarrai. Beraz, Petain, Laval eta Darlannen eskutik hil zen III. Errepublika eta jaio zen Estatu faxistazalea. Britainia Handiari bizkarra eman zioten bitartean, erregimen berriaren funtsa adostu zuten Hitlerrekin eta bere ordezkariekin, *Travail, Famille, Patrie* lelo faxistan bilduta.

Euskaldunak "Eskual Reicharen" menpe

Egitura politiko-militar eta *faxistizazio* tes-tuinguru horretan, Espainiatik alde egindako errefuxiatuen aurkako neurriak larriagotu ziren. Lan batailoien bidez kontzentrazio zelaietatik atera zirenak ipar mugetara edo Meginot lerrora bidali zituzten. Alemanen erasoaldia gertatu zenean, gehienak preso egin zituzten. Alsaziatik edo Pikardiatik, nahita nahiez, Mauthausengo bide ezezaguna hartu zuten askok, milaka europar gatiburen patuari jarraituz.



Era berean, gerra frontetik urrun zeuden errefuxiatuek Frantziako erregimen zaharren azken zartako errepresiboak jasan zituzten, iparraldetik nazien erasoak jotzen zuen bitartean, komunisten, judutarren eta kanpotik iritsitako errefuxiatu guztien aurkako paranoia zabalduz joan baitzen. Eskuin muturrak aspaldidanik erein zuen talde horien aurkako gorrotoa lege bilakatu zen. Hori zela eta, sarekadak eta atxilotetak ugaritu ziren errefuxiatuak zeuden eskualde orotan. Ipar Euskal Herrian, esate baterako, bertako diputatua zen Jean Ybarnegarayk indar handiz hauspotu zituen erbesteratuen aurkako neurriak. Parlamentuan zein komunikabideetan, frankisten mezulari oldarkorrena izan zen, Lequerica enbaxadore frankistak eskatzen zuena gauza zedin: erbesteratuak atxilotzea. Jakinaren gainean egonen zen Ybarnegaray garaztarra, 1940ko maiatzaren erdialdean, inolako lotsarik gabe, aldarrikatu zuenean errefuxiatuak kontzentrazio zelaietara edo Espainaira deportatuak izanen zirela. Izan ere, egun batzuk geroago, horrelako neurriak hasi ziren hartzen erbesteratuen aurka. *Ligue Internationale des Amis des Basques*-en egoitza itxeaz gain, hainbat lantokitatik kanporatuak izan ziren –Breguet-etik, esate baterako–. Larriena, maiatzaren 25etik aurrera egindako atxiloteta masiboak izan ziren. Oloruen, La Roseraieko ospitalean, Donibane Lohitzunen, Baionan, Hendaian, baita Landatako herrietan ere, errefuxiatu asko atxilotu –800 inguru– eta Gurseko kontzentrazio zelaira eraman zituzten Frantziako jendarmeez. 1936ko Irungo exodoa gertatu zenetik Ybarnegarayk eskatzen zituen errefuxiatuen aurkako neurri errepresibo orokorrak egia bihurtu ziren frankisten pozerako. Izan ere, Frantziako Gobernuak Francorena onetsi zuenetik, horrelako erabakiak etengabe eskatzen ari ziren azken hauek.

1940ko abagunean, egoera oso berdintsuak ziren Iparraldea zatitzen zuen lerro mugaren bigaldetan: Vichy zaleen *collaborationismoak* berditzen zuen nazien menpe zeuden egoera

Baina ekimen errepresibo horren oinarrian nolabaiteko porrota ere bazegoen. Reynauden Gobernuak armada nazia geldiarazteko zuen ezintasunaren ondorioa izan zen gorrien aurkako ehiza bultzatzea; porrot militarrek erregimenaren kolapsoa ekarri zuen. Hori dela eta, alemaniarrek Petainen aldeko armistizioa sinarazi zieten bitartean, *France libre*-ren partaide apurrak hexagonotik alde egiten saiatu ziren. Esate baterako, Espainiako errefuxiatuak 1939an Ameriketara joateko erabilitako hainbat barkuk –*Massilia* izenekoa, adibidez–, 80 diputatu eta goi mailako politikari inguru hartu zituzten Bordelen, naziengandik alde egiteko eta Frantziako kolonietatik nola edo hala borrokari eusteko asmoz.

Euskaldun ugari, Iparraldeko zein Hegoaldeko, Britainia Handira jo zuen beste itsas portuetatik –Donibane Lohitzunetik batez ere–, *Kelso*, *Tsratt* eta *Ettrick* bezalako ontzietan. Ekainaren 20 eta 24 artean gertatu zen hori, naziak Euskal Herriratu baino hiru egun lehenago. Hilaren 27an, Baionatik eta Miarritzetik desfilatu ostean, *Wehrmachteko* soldaduek bat egin zuten Hendaiaiko muga beren aliatu frankistekin. Armistizioak erabakitakoaren ondorioz, Vichyren eta Alemaniaren menpe zeuden lurraldeen arteko muga-lerroak Ipar Euskal Herria ere goitik behera zatitzen zuen. Donapaleutik Arnegiraino zihoan murrak Lapurdi osoa eta Nafarroa Behereko puska bat nazien menpe utzi zuen. Eskualde horretako ekialdea eta Zuberoa, aldiz, Vichyren pean gelditu ziren. Baina 1940ko abagunean, egoera oso berdintsuak ziren lerro muga horren bigaldetan: Vichy zaleen *collaborationismoak* berdintzen zuen nazien menpe zeuden egoera, eta makien zein erresistentziaren ekimenak oraindik antolatuta gabe zeuden. 1940an beraz, Eskual Herriak, Eskual Reicha zirudien. ■



tradEBi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradEBi.com

Slavoj Zizek

«Unibertsaltasunaren indarra zuek zarete, euskaldunak, ez Espainiako Estatua»

Coca-Cola light batekin eseri da mahaian. Opus Deiren hirian gaudela entzun eta Francoren krudeltasunaz galdezka hasi da. Irakurria duela, gaiztoegi italiar faxistentzat ere. Garrotea. Salvador Puig Antich. “Gogoan dut, bai”. Eta elkarriketa erraz doa, ia konturatu gabe ordubete pasatzeraino.

GORKA BEREZIARTUA / MARKOS ZAPIAIN

Argazkiak: Josu Santesteban

Esan izan duzu ezkerak historian izan duen bekaturik handiena galtzeko gogoia izan dela. Desira horrek esplikatu dezake egun bizi dugun alternatiba falta?

Hori esan nuen, batez ere, gaur egungo Mendebaldeko ezker akademikoari buruz. Nik uste dut beraiek, sekretuki, gozatu egiten dutela euren bizimodu akademiko erosoarekin unibertsitateetan. Eta aldaketa beharraz hitz egiten duten arren, benetan ez dute nahi: iraultza gustatzen zaie baina oso-oso urrun gertatzen bada, Nikaraguan edo orain Venezuelan, beraien bizitzak benetan aldatzen ez dituen lekuetan. Uste dut Frankfurteko eskolarekin hasia zela hori; ezker akademiko oso kritikoa zen bere gizartearekin, baina kritika kultural abstraktu bat zen, eta ez zeukan inolako benetako engaiamendurik. Oso posizio harroa da, eta nik horri esaten diot, Hegeli jarraituz, Arima Ederra: posizio eroso daukazu, oso kritikoa, baina hala ere erabat integratuta zaude gizarte horretan. Eta orokorrean, uste dut hori dela egia “ikasketa kulturaletako ezker” horren kasuan.

Baina baita gure kasuan ere, ezta?

Bai, baina ez genioke gure buruari errua gehiegi bota behar. Arazoa erradikalagoa da. Adibidez: Greziako finantza-krisia daukagu, eta nire inguruko batzuk gogobeteta daude, “begira, desordena publikoak, iraultza hasten ari da”... Ez! Nola? Zer nahi dute Grezian protestan ari direnek? Pribilegio zaharrak ez galtzea. Niretzat oso tristeia zera da: ezker pragmatikoak eskain

dezakeen guztia lotuta egotea ongizate-estatu zaharrari. Ezkerra, zentzu horretan, gaur egungo indar kontserbadorea da. Ez al da tristeia benetako programa alternatiborik ez edukitzea? Ezta maila globalean kapitalismoarekin kritiko direnek ere. Gogoratzen Seattle eta Porto Alegre mugimendua duela bost-hamar bat urte? Noski, polita zen, denak batera zeuden han, protesta mugimendua zen. Baina inperialismoaren kontrako esaldi orokor batzuk kenduta, edo ekologiaren alde... ez zeukaten programa alternatiborik. Arazo larria da. Ez dut uste defini dezakegunik zer nahi dugun [azken hiru hitzak mahaian kolpe txiki banarekin lagundu ditu]; posizio negatiboa da funtsean. Uste dut garai arraroan bizi garela. Antonio Gramsci-k lerro eder batzuekin azaltzen zuen: zaharra hiltzen ari den eta berria jaio ez den garaiotan, munstro itxurako gauzak azal daitezke.

Nortasun agiria

Slavoj Zizek Ljubljanan jaio zen 1949an eta Esloveniako kostaldeko Portoroz hirian hazi. Unibertsitatean hasi zen Yugoslaviako disidenteekin harremanetan, baita Lacan, Hegel, Marx... sakon ezagutzen ere. 1990ean, bere herrialdeko lehen hauteskundeetan presidentetzarako hautagai izan zen. Geroztik idatzi, idatzi eta idatzi egin du, politikaz, ideologiaz, filosofiaz, kulturaz... Munduaz dihardu, ezkerretik, probokatzailerik.



“Ekologiak behartzen gaitu ekintza berri, erradikal eta masiboetara; hori ezin dugu ez merkatuaren ez estatuen esku utzi”.

Zein dira munstroak?

Iruditzen zait fundamentalismoa bezalako fenomenoak ere espezie horretakoak direla. Zaharra hiltzen ari da, berria ez da jaio oraindik. Potentzialki oso arriskutsuak diren garaiak bizitzen ari gara. European mundu guztia arduratuta eduki beharko lukeen zerbait gertatzen ari da: orain arte, herrialde arrunt batean, tentsio politikoa izaten zen ezker moderatuaren eta eskuin moderatuaren artean. Bi alderdi handi egoten ziren eta horietatik aparte beste marjinal batzuk: alderdi faxista txiki batzuk, ekologista batzuk... Baina orain eszena diferentea ari da sortzen:

alderdi zentral teknokratiko handi bat ari gara ikusten, liberala, popularra... nahi bezala deitu; eta gero, alderdi kontserbadore, nazionalista bat, etorkinen aurkakoa. Indartsuago eta indartsuago ari dira bihurtzen: begira azken bozak Holandan, Belgikan, Ekialdeko Europa katastrofea da... Beraz, aukera bakarra da nolabaiteko kapitalismo neutral teknokratikoa ala eskuin mutur proto-faxista. Hori da ezkerraren gainbeherarengatik ordaintzen ari garen prezioa. Badakizue Walter Benjaminek esaten zuena? Faxismo bakoitza huts egindako iraultza baten adierazgarri da. Eta hori literalki egia da herrialde arabiarrentzat.



Zergatik daukagu orain fundamentalismo islamiarra? Ezker arabiar sekularra desagertu zelako. Beraz, den bezain itsusia izanda, fundamentalismo hori, neurri batean, seinale ona ere bada: esan nahi du badagoela aldaketarako potentziala, baina ez dugula erabili.

Eta nola egiten da potentzial hori hartu eta ezker muturreko mugimendu bihurtzeko?

[Barre egin du] Horretan baikorra eta ezkorra naiz aldi berean. Baikorra, argi baitago gaur egungo krisi-fenomeno hau guztia ikusita, arazo asko —ez bakarrik finantza mundukoa, baita ekologikoa ere, edo jabego intelektuala-rena...— ezin direla konpondu kapitalismoaren barrutik. Krisiak sortzen dira behin eta berriz. Jendeak esaten dit “erotuta zaude, nola esaten duzu gaur egun komunismoa beharrezkoa dela?”. Eta nik esaten diet, “begira Louisiana inguruko petrolio-isuria”. Obama oso ahula izan da kontu horrekin. Arazo legal bihurtu du, British Petroleumek ordaindu behar duela esaten hasi da... Erridikulua da! Katastrofe globala ari da izaten, ezin dituzu lege-joko horiek egin, erruduna nor den bila-

Zinikoen hamsterrak

“Ziniko bakar bat ere ez da erabateko zinikoa; zinismoa ezinezko posizioa da, zinikoa izan nahi duen jendeak ere bai baitauka nik hamsterra esaten diodan hori. Zerbait esateko ‘hau erreala da’. Eta puntu horri eraso egin behar zaio kritika ideologiko eraginkorra egiteko”.

tzen hasi. Eta ezin duzu jokatu esanez “konpainia pribatuekin tratuan ari gara”. Mobilizazio orokor bat egon behar zen. Konturatzen al gara nolako erronka dugun aurrean? Isuriak jarraitzen badu, habitat osoa aldatuko da inguru horretan, jendeak bizilekuz aldatu beharko du... Edo, erronka handiagoak oraindik: beroketa globalaren eraginez etorkizunean antolatu beharko ditugu populazioen leku-aldatze handiak, milioiek mugitu beharko dute hemendik hara... Nork antolatuko du hori? Ezin diozu merkatuari utzi. Ekologiak behartzen gaitu ekintza berri, erradikal, herritar eta masiboetara; eta horiek ezin ditugu merkatuaren esku utzi, ezta estatuaren esku ere. Horrek guztiak behar bat sortzen du, nik oraindik komunismo esaten diodan zerbaiten beharra, hain zuzen ere.

Baina, aldi berean, ez dut uste oraindik prest gaudenik ekintzarako. Eta horretan ezkorra naiz. Nire lagun asko katastrofistak dira. Pentsatzen dute katastrofe ekologiko pare bat gehiago behar ditugula, edo desordena publikoak. Nik diot baietz, baina katastrofeak eta krisiak beti fenomeno anbiguoak direla. Zabal

dezakete aldaketarako espazioa, baina, era berean, krisi bat dagoenean, jendearen erreakzioa izaten da are kontserbadoreago bihurtzea.

Shock doktrina.

Hori da. Argi dago, adibidez, finantza krisiak erakutsi duela merkatu libreko liberalismoa mitoa dela. Mundu guztiak daki orain nazio-estatuak geroz eta indartsuago bihurtzen ari direla—eta honetan ez nator bat nire lagun Toni Negriekin, ze berak uste du nazio-estatuak desagertzen ari direla—.

Baina zerorrek esan izan duzu globalizazioa txarra dela Alemania bezalako estatuentzat.

Globalizazioaren benetako biktimak nire ustez, bigarren mailako potentziak dira, Europako nazio handiak, berbarako. Espainia, Alemania, Ingalaterra... Globalizazioak esan nahi du Eskoziak independentzia nahi duela edo behintzat autonomia handiagoa; zuek, euskaldunek, ere bai... Hori, berez, fenomeno ona da. Banandu nahi duten entitate berri horiek ez dute bakarrik nazio-estatu zaharra lortu nahi, entitate autonomo berri bat baizik, espazio libre askoz gehiagorekin, baita kulturen ere. Oso fenomeno interesgarria da. Globalizazioak ez du esan nahi denok hanburgesak jaten ariko garela, esan nahi du errazagoa dela, zuentzat adibidez, nazioartean zuen identitatea adieraztea. Hori da globalizazioaren alde ona. Beraz, aukera hori erabili beharko genuke [erakuslearekin mahaiari kolpetxoak eman dizkio]. Ez dugu kontserbadoreak izan behar, eta ez diogu horri beldurrik zertan eduki.

Eslovenian ez duzue itzuli nahi Yugoslaviaren antzeko estatu batera.

Ba al dakizue zein zen tragedia hor? Esloveniaren artean gehiengo handiak ez zuen nahi erabateko independentzia. Konfederazio

"Krisiak beti fenomeno anbiguoak dira. Zabal dezakete aldaketarako espazioa, baina, era berean, krisi bat dagoenean, jendearen erreakzioa izaten da are kontserbadoreago bihurtzea"

Milosevicek.

Milosevicek, hori da. Lagunartean eztabaidatzen dugunean Eslovenia independentearen heroiari monumentu bat egitekotan nori egin beharko geniokeen, ondorioztatzen dugu Milosevici egin beharko geniokeela [barre egin du]. Ikusi genuenean biolentzia populistaren logika hura, jakin genuen gerra etorriko zela. Eta ideia zen: "Goazen kanpora, dena lehertu baino lehen". Horretan Mendebalde oso *naifa* izan zen, ez zuten ikusi bazetorrena.

Ezkerreko jendeak ere ez. Tariq Ali eta...

Ezkerrekoak izan ziren okerrenak. Tariq Alirekin gatazka eternoa daukat: ez dakit, nik erabiltzen badut argudio modura pakistandarren ergelkeria edo alferkeria... Jainkoarren! Antiarrazismoaren oinarritzko araua da ez erabiltzea klixé arrazistak arrazoi politiko gisa, esloveniarrren berekoikeria erabili zuten bezala. Guretzat bizirauteko bidea izan zen: gerra bazetorrela ikusi genuen, argi zegoen mundu guztiarentzat, Mendebaldeko begirale ergelentzat salbu. Yugoslavia hondoratu zutenak ez ziren izan esloveniarrak eta kroaziarrak, Milosevic izan zen. Kargua hartu zuen momentuan Titoren Yugoslavia hil egin zen. Aukerak ziren, agian Yugoslavia berria eraikitzea, demokratikoa, autonomia handiagoarekin, konfederatua... ala Milosevicek irabazten du eta bihurtzen da, guk ironikoki esaten genuen moduan, Serboslavia. Urte garrantzitsuenak Milosevicen aurrenekoak izan ziren, 1986tik 1989ra. Haren kontra zeudenak saiatu ziren, desesperatuki, bertsio alternatibo bat negoziatzeko; eta katastrofea izan zen armadak eta botere zentralak



"Egizu zerbait ezberdina,
ZATOZ TXURIRA!!!"



Anoeta pasealekua, 24 • Donostia
Tel.: 943 464 404 • www.eltxuri.com





Milosevicen alde egin zutela. Garbi zegoen beraz, mundu guztiarentzat, bukatua zela dena. Tragedia grekoen antza zeukan: bazetorrela ikusten genuen eta ezin ezer egin.

Jürgen Habermasek ere esaten zuen serbiarrak bakarrik eraiki zezaketela benetako herrialde demokratikoa. Hemen gauza bera esaten dute espainiarrei buruz.

Ez naiz harritzen Aznarrek publikoki esan izana Habermas izendatu beharko luketela Espainiako filosofo ofizial, abertzaletasun konstituzionalaren ideiarengatik. Hori da Habermasen mugarik argiena: badauka beldur erabat faltsu hori, nazio txikiei espazio gehiago emateak ekarriko duela nolabaiteko proto-faxismoa, demokraziarentzat arriskua eta abar. Eta beraz nazionalismo serbiarraren gaixotasun handiena onartu zuen —eta harrigarria da Milosevicen kontra zeuden demokrata-ustezko askok akats bera egin izana—: pentsatzea serbiarrak zirela Yugoslavia ohiko nazio bakarra, estatu bat eraikitzeko gaitasunarekin; gainontzeko nazioak ez zirela kapaz horretarako.

Euskaldunok, nola artikulatu dezakegu gure borroka partikularra komunismoaren borroka unibertsalarekin? Kale itsua da bien uztartzea?

Ez! Inola ere ez! Hain zuzen ere, uste dut Europar Batasunaren barruan bertan, zenbat eta Europa indartsuagoa izan, hainbat eta handiagoa izango dela zuen autonomia-espazioa.

Badiouren maoismoa

“Burla-haizez idatzituen nonbait Badiourentzat maoismoa dela, Heideggerrentzat nazismoa izan zena: azken engaiamendu politiko handia. Irakurtzen baduzu Maoren testuekin egin nuen liburuaren edizio frantsesa, sarreraren kritika egin zidan eta sutan zegoen...”.

AZKEN HITZA

Gora Darth Vader!

“Nire ametsa da, eta ez daukat dirurik egiteko, *Star Wars* berridaztea, enperadorea eta Darth Vader heroi bihurtuz. Jediak jauntxo feudal txikiak dira nire bertsioan eta inperioa berriz, diktadura aurrerakoa”.

zioa. Europa batuagoa dagoen neurrian, gehiago izango da erregioen Europa eta ez hainbeste nazio-estatuena. Oso paradoxa polita da: Espainiako estatutik erabateko autonomia nahi duzen neurrian, zuena espazio unibertsal gorena da. Ez zenikete beldurrik izan behar Europari. Kontuz Habermasen jarraitzaile diren ezkertiar faltsu horiekin: esaten dute Europar Batasuna Nazioarteko Diru Funtsaren tresna dela, nazioarteko kapitalarena, eta beraz ezkerren zeregina dela nazio-estatu indartsuetara itzultzea; uste dute nazio-estatu indartsuak bakarrik salba dezakeela ongizate-estatutik gaur egun salba daitekeena. Lehenik eta behin, ildo horri jarraitzen badiozu, zeure burua aurkituko duzu Europako eskuin erradikalarekin batera, nazio-estatu indartsuagoren alde baitaude, beti etorkinen arriskuaz ohartarazten eta abar.

Ni hegeliarra naiz: unibertsaltasunaren alde nago. Baina unibertsaltasunak ez du zure partikularitasuna zokoratzen; kontua ez da zure partikularitasunari uko egitea, alderantziz, zure partikularitasuna ikusi behar duzu unibertsalean parte hartzeko bide bezala. Ezker unibertsalistaren ideia faltsua da gure identitateaz ahaztu behar dugula, baina inor ez da bizi espazio abstraktu batean. Dialektika hemen oso argia da: Europa unibertsala bezalako espazio hierarkikoa daukazararik, eta horren azpian nazio-estatuak, unibertsaltasunaren aliatuak dira nazio-estatuen subiranotasun osoa barrutik azpi-jaten dutenak. Hain zuzen ere zuek, espainiar nazio-estatuari kontra egiten diozuen neurrian, unibertsalagoak zarete. Hori izan behar da zuen argudioa. Unibertsaltasunaren indarra zuek zarete, ez Espainiako Estatua. Eta uste dut hori ezinbestekoa dela Europa batuarentzat. Nik oraindik badut esperantza European ze, gainontzean bi eredu daude: liberal-anglosaxoia eta Txina, Japonia eta abarretako kapitalismo autoritarioa. Nik ez dut bizi nahi aukera bakarrik horiek diren mundu batean [barre egin du]. Baina Europa bakarrik elkartuko da, erregioen Europa bihurtzen bada, ez

du funtzionatuko oinarritzko unitatea nazio-
estatua den bitartean.

**Zure ama-hizkuntza esloveniera da, baina elkarriz-
keta hau ingelesez ari gara egiten; zure liburuak
ere hala publikatzen dira. Nola daramazu hori?**

Gauza bera da: nire lagun askok pentsatzen
zuten ingelesa inperialismoaren organoa zela,
ingelesaren kontra zeuden. Ni ez. Zuena
bezalako egoera batean, hain zuzen ere,
espainiera eta zuen hizkuntza egonda, ona da
hirugarren hizkuntza bat edu-
kitzea, ingelesa legez; neurri
batean unibertsaltasun-espä-
zioa da, ingelesarekin mugi-
tzen baldin bagara, espainiera
bihurtzen delako gainontzeko
hizkuntza guztien artean
beste bat, zuenaren maila
berean. Ingelesak aukera ema-
ten dizue Europako beste
parte batzuekin hitz egiteko Espainiaren
bitartekaritzarik gabe. Oso pragmatikoak
izan beharko genuke horretan. Oso tipikoa
da Frantzian, adibidez, nola nazionalista fran-
tsesak ingelesaren kontra dauden. Zergatik?
Frantziar estatu handi bat nahi dutelako.
Berriz diot, saihestu egiten dut akats hori,
hau da, esatea “itzul gaitzezen nazio-estatu-
subiranotasun osora”. Badakizue noiz hasiko
naizen European sinesten? Zuek, euskaldun
modura, gai zaretenean konektatzeko beste
erregio txikiekin, ez Espainiako Estatuaren
bidez, zuzenean baizik. Hori izango da bene-
tako europar unibertsaltasuna praktikan.

Titular bat eman diguzu esaldi horrekin...

Bestela, manipulatu dezakezue, nahi duzuen
bezala... Manipulazioan sinesten dut, dena
onartzen da politikan [barre egin du].

**Gaiez aldatzeko: iaz Londresen *On the idea of
communism* kongresua egin zenuten...**

... barka moztea: lagun batek kongresu horri
buruzko karakterizazio ona egin zuen. Esan
zidan Woodstock bezalakoa izan zela: izar
zaharrak joan ziren, euren kanta zaharrak
jotzera [barrez]. Zoritzarrez egia zen!

**Kongresu hartan hitz egin zenuen gizarte
komunista batek artistei eman beharko liokeen
trataeraz, Franz Kafkaren *Josefin kantaria*
narrazioa eredu jarrita. Baina, filosofoentzat
tratu bera onartuko zenuke?**

Bai, problemarik gabe. Nik ez dut inolako
pribilegiarik nahi, oso apala naiz alde horre-
tatik. Non dago ba, problema?

**Konferentzia hau [Iruñean antolatutako “Arqui-
tectura mas por menos”] bezalakoetan jasotzen**

**duzun tratamenduan. Ez duzu beldurrik filosofo-
fetitxe bihurtzeko? Jendeak zu mirestea-eta...**

Baina Josefin ere miresten dute. Problema
hasten da berak benetako pribilegioak nahi
dituenean, dirua... Momentu horretan esaten
dio jendeak ezetz. Hala ere, nire lagun ezker-
tiar batzuek esaten didate, hau bezalako kon-
ferentzietan parte hartzen dudanean nire
burua *establishmentari* saltzen ari naizela. Baina
nik beti gogoratzen dut Leninen esaldi hura:
kapitalistak salduko dizu, baita bera zintzili-
katzeko soka ere. Horrek esan
nahi du, “har ezazu!”. Nik
hemen dirua irabazten dut,
eta horrek aukera ematen dit
inguruan bidaiazteko, hitzal-
diak doan egiteko, eta abar.
Ez naiz fetitxista diruarekin;
heldu aukera guztiei, hartu
dirua. Gero zer egiten duzun,
hori da garrantzitsua.

**Filosofia Kant eta Hegelen artean gertatu zen
zerbait al da?**

Lagunak probokatzeko esaten dudan zerbait
da hori, baina gustatzen zait ideia...

**Beranduago gaizki-ulertua, lehenago intuizio
nahasi batzuk...**

Oinarritzko ideia ondoko hau da: zerbait hain
traumatikoa eta indartsua gertatu zen Hege-
lekin, oraindik ez garela bueltan etorri. Hegel
ez da gure iragana, gure etorkizuna baizik.
Hari buruz dauzkagun ohiko nozioak...
Kierkegaardek, Schopenhauerrek eta baita
Marxek ere egindako kritikek huts egiten dute
nire ustez. Hegel baino lehen metafisika tra-
dizionala daukagu, gero XIX. mendeko pen-
tsamendu positibista, baina tartean, Hegelen
baitan, gauza bakan bat gertatzen da: ez
metafisika eta ez post-metafisika, eta oraindik
ez gaude prest erabat aurre egiteko orduan
gertatu zenari. Hegel bi munduen artean
zegoen, eta nik uste dut horiek direla posizio
produktiboenak. Badakizue zergatik? Jen-
deak galdetzen didanean zergatik Eslovenian
garatu dugun erlatiboki hain teoria ona, nik
erantzuten dut zortea izan genuela; ez ginen
argiakoak, baina Yugoslavia ohia, eta bereziki
Eslovenia, posizio idealean zegoen: herrialde
sozialista batean geunden, baina, aldi berean,
oso irekia zen, Mendebaldearekin harremana
genuen. Ez geneukan sozialismoarekin inola-
ko ilusiorik, baina ezta Mendebaldearekin
ere. Tartean geunden, eta gai ginen ikusteko
zer zebilen gaizki mundu bakoitzean. ■

argia.com Elkarrizketa bakarraren orde-
z bi: argitaratu duguna bezainbeste geratu zaigu
paperetik kanpo. Sarean irakur dezakezu.

Euskaraz
lan egiteak
motibazioa
pizten du

bai
euskarari

Euskaraz
kirola
gehiago
gozatzen
da

Euskaraz
aritzeak
konfiantza
ematen die
bezeroei

Euskaraz
negozio
hobeak egin
daitezke

1.500 entitate baino gehiago ziur daude

10
urte

ziurtagiriaren **elkartea**



902 43 00 26 / 05 59 25 50 41 baieuskarari.org

balioa eta berrikuntza

• Isabel Cristina Pardo, Kolonbiako preso politikoekin lanean •

«Armadak argi du nola jokatu gerrillari bat ikustean: erail eta desagerrarazi»

Kolonbiak ia 50 urte daramatza gatazka armatu bizian, eta urte hauetan guztietan zifra kezkagarriak utzi ditu: lau milioi barne desplazatu, 550.000 errefuxiatu, 90.000 hildako eta 7.000 preso politiko. Comité de Solidaridad con los Presos Políticos (Preso Politikoekin Elkartasun Batzordea) taldeko Tolima eskualdeko koordinatzailea da Isabel Cristina Pardo.

Testua eta argazkiak:
IRANTZU PASTOR

Noiz sortu zen Kolonbiako preso politikoek elkartasuna adierazteko batzordea?

Errebolta akusaziopean atxilotu eta espetxeratuak izan direnei laguntza juridikoa eta elkartasuna ematea da elkartaren helburua. Horrez gain, presoek senideak laguntzen ditugu prozesuan eta presoak bizi duten egoeraren salaketa publikoa ere egiten dugu.

1970ean sortu zen batzordea. Kolonbian urte zailak bizi genituen, Turbay Ayala-ren Gobernu eskuindarrak gerra zikina hasi baitzuen bere ideologia partekatzen ez zuten guztien aurka. Mugimendu sozial handia zegoen eta gobernutik errepresio ikaragarria jasaten genuen; desagertpenak eta erailketak ematen ziren egunero, eta jende asko atxilotu zuten. Testuinguru horretan, Kolonbiako hainbat abokatu, intelektual eta politikari elkartu ziren Estatu-krimenetako biktimei elkartasuna eta laguntza emateko asmoz. Adibidez, Gabriel García Márquez idazleak Nobel saria irabazi zuen eta irabazitako diru guztia batzorde sortu berriari eman zion, abokatuak preso politikoekin lan egiten hasi zitezen.



Eta zein zeregin du zehazki?

Errebolta akusaziopean atxilotu eta espetxeratuak izan direnei laguntza juridikoa eta elkartasuna ematea da helburua. Horrez gain, presoek senideak laguntzen ditugu prozesuan eta presoak bizi duten egoeraren salaketa publikoa ere egiten dugu. Atxilotu gehienak ikasteko aukerarik izan ez duten nekazariak dira, beraz eurekin orientazio lana garrantzitsua da, preso bezala dituzten eskubideak ezagutu ditzaten. Azken urteetan, dena den,



"FARC-EP-k dio ez dutela inongo aukerarik Kolonbiako bizitza publiko eta politikoan parte hartzeko eta euren Estatu proiektua aurkeztu ahal izateko. Hori horrela, zaila dirudi bake prozesuetan sinestea"

Uriberen Gobernupean geroz eta zailagoa egiten zaigu lanean jarraitzea.

Orduan zuentzat, errebolta akusaziopean espetxeratuak izan diren guztiak dira preso politiko?

Bai, gure herrian errebolta akusazioa Estatuaren politikaren aurka lan egiten eta borrokatzen duen orori ezartzen zaio. Horietako asko nekazariak dira, beraien eskualdetan eskubide politiko eta sozialen errespetuagatik borrokatzen dute, erresistentzia baketsuaren bidez. Gerrillariak berriz, preso politikoak %50a dira, 3.500 gutxi gorabehera. Jakinaenez, Kolonbia etengabeko gatazkan bizi da eta gerrillari asko atxilotzen dituzte, baina armadak argi du nola jokatu gerrillari bat ikustean eta normalena da berau erail eta desagerraraztea. Preso politikoak dira baita ere sindikatuetako kideak, baina hauek errazago lortzen dute abokatuen laguntza, sindikatuen bidez.

Desberdindu egiten al du Estatu kolonbiarrak preso politiko eta sozialen artean?

Ofizialki ez, preso politikoak terroristatzat eta kriminaltzat hartzen dira, ez zaie estatus politikoa inolaz ere onartzen, baina eguneroan desberdintzen dituzte: besteek jasaten ez dituzten zigorrak ezartzen zaizkie etengabe. Preso politiko gehienak beraien ideologiarengatik izan dira espetxeratuak eta pentsamendua aldaraztea dute helburu, baina argi dago hori indarrez ez dutela lortuko. Preso politikoek eskatzen dute estatus politikoa aitortzea eta espetxeetan preso bezala dituzten eskubideak errespetatzea eta bermatzea.

Atxilotetaren unetik, zein dira preso politikoak jasaten dituzten eskubide urraketak?

Kolonbian, atxiloteten %80a Armada Nazionalak burutzen ditu, baina ez dute horretarako eskubiderik eta gainera inolako agindu judizialik gabe egiten dituzte. Ez dizkizute

eskubideak irakurtzen, torturak pairatzen ditugu, inkomunikazioa... Mota guztietako indarkeria. Hori, baldin eta atxilotzen bazaituzte, goitik duten agindua baita gerrillaria ikusiz gero zuzenean erailte. Noski, ilegala da, baina horrela da kasu gehienetan. Kartzeletan berriz, tortura psikologikoa ohikoa da: irainak, bisitak murriztea edo sakabanaketa. Kolonbiako espetxe urrunetara eramaten dituzte familiaren bisitarik ez jasotzeko, senideek ez baitute dirurik izaten bidaiatzeko.

Eta espetxe barruan antolatzeko aukera al dute preso horiek?

Hasieran ikaragarria zen antolakuntza espetxeetan; patioetan elkartzen ziren eta protestak antolatzen zituzten euren eskubideak aldarrikatzeko. Gerrillariak giza-eskubideei buruzko mahai-inguruak antolatzen zituzten, preso politiko eta sozialek hartzen zuten parte eta funtzionarioei euren kexak helarazten zizkieten. Álvaro Uriberekin ordea, murrizketa erabatekoa izan da, inoiz baino okerrago dago presoaren egoera. Lider izandako edo perfil hori duten presoak isolatuta daude 24 orduz, eta bestelako estrategiak asmatu dituzte inolako antolakuntzarik eman ez dadin.

Nola bizi dute hori guztia presoaren senideek?

Gogorra da, preso politikoak %80ak ez du inoiz bisitarik jasotzen. Alde batetik, presoak horrela aukeratzen duelako, urrundu egiten dira senideak babesteko, hauek ere mehatxuak eta jazarpenak jasan ez ditzaten. Laguntza psikologikoa eta elkartasuna eskaintzen diegu guk. Horrez gain, bestelako proiektuak ere baditugu. Nire eskualdean esaterako, memoria ariketak deiturikoak egiten ditugu estrajudizialki eraildako herritar eta gerrillarien senideekin. Fiskaltzetara laguntzen ditugu hobi komunak irekitzeko eskatzera —eraildako gerrillarien gorpuak ez dizkiete senideei ematen, hobi komunetan botatzen dituzte— eta ondoan gaituzte gorpuak identifikatzeko edo jasotzeko orduan.

Senideentzat oso garrantzitsua da ehorzketa eta agur duina egitea.

Presoen iritziz, zein urrats eman beharko lirateke Kolonbian bake prozesuak aurrera egiteko?

Garbi dute preso eta bahituen arteko trukea ez dela nahikoa gatazkarekin bukatzeko. Gobernu politikan aldaketa sakona eman behar dela uste dute, herriari oinarrizko beharrak bermatuko dizkion aldaketa, guda egoeratik orain ematen ez diren zerbitzuak: hezkuntza, osasuna, giza-eskubideen errespetua... Argi diote gure herrian beti egongo dela gatazka sistema aldatzen ez den bitartean, Estatu sozialistan sinesten dute, oso zaila da, baina fedea dute noizbait denek eskubide berdinak izango dituguna.

Bake prozesu saiakerak eman dira Kolonbian, baina huts egin dute beti. Orain badirudi arazoa Gobernuaren eta FARC-EPren artean dagoela... Azken horiek, mendian gordeta, adierazi dute geroz eta urrutiago daudela herriarengandik, baina gaur egun ez dutela inongo aukerarik Kolonbiako bizitza publiko eta politikoan parte hartzeko eta euren Estatu proiektua aurkeztu ahal izateko. Hori horrela, zaila dirudi bake prozesuetan sinestea.

Orain gutxi Errepublikaren Kongresurako hauteskundeak izan dira Kolonbian eta eskuindarrak irabazi dute berriz. Nola eragingo du?

Ikaragarria izan da, ez dira eskuindarrak, ultraeskuindarrak baizik! Lotsagarria da paramilitarismoarekin zerikusia izateagatik epaituak izan diren politikari guztiak berriro ere kongresuan eserita ikustea. Emaiztek zein ondorio ekarriko dituzten? Eraiketa gehiago, exekuzio estrajudizial gehiago, mehatxuak, errepresioa, jazarpena, militarizazioa, atxilotetak... Nik beti erran izan dut nire herrian gauzak horrela jarraituz gero,

erail egingo nautela edo preso sartu. Baina bizirik utzi nazaten espero dut, preso politiko gisa borrokan segitu ahalko nuke, baina hila zoritxarrez ez.

Nola amesten duzu zure herria?

Aktibista eta ezkertiar bezala argia da bidea: sozialismoa. Gobernu berri bat sortzeko beharra dago, herriarekin eta herriarentzat proiektu politikoak burutuko dituen. Giza-eskubide guztiak bermatzea, egia aitortzea, justizia, egiazko berdintasuna... beharrezkoak dira. Triste da, gaur egun bost familia aberatsen esku dago Kolonbia, herriak pobrezian eta gerran bizirautean duen bitartean.

Mehatxuen gainetik, borrokan jarraitzea hautatu duzu zuk.

Beti sinetsi izan dut noizbait gauzek aldatu egin beharko dutela Kolonbian, eta giza-eskubideen defendatzaile naizen aldetik, aldaketa horretarako gogor lan egingen saiatu naiz betidanik, ez naiz inoiz geldirik geratuko gauzak berdin jarraitzen duten bitartean. Une zaila da hau, baina ezkertiarra eta iraultzailea naiz, eta beraz ameslaria. Aldaketaren aldeko apustua egiten dut, borrokaren bidez. Nik ez nuen hona etorri nahi [Espainian dago, duela hilabete batzuetatik], ez nuen nire herria utzi nahi eta lehen egunak gogorak izan ziren. Baina egoera oso zaila da han, mehatxuak eta jarraipenak etengabeak dira, dagoeneko batzordeko hamabi lagun erail dituzte. "Pobrea naiz Jainkoak ala nahi duelako" diskurtsoa baztertu egin dut, bizitzan konturatu naiz borroka dela gauzak aldatzeko bide bakarra, konbentziturak gaudenok beti lagunduko dugu egoera eraldatzen. Aldaketa horretan sinestea da nire lana, eta besteei sinestaraztea, hori baita aldaketarako lehen urratsa. ■

"Lotsagarria da paramilitarismoarekin zerikusia izateagatik epaituak izan diren politikari guztiak berriro ere kongresuan eserita ikustea"



DONOSTIA

Uztailaren 2tik 18ra, Gipuzkoa plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Arantzez

Iruñean bota zuen Slavoj Zizek pentsalaria: “Zure oinen azpian zabaldu ditut nire ametsak, goxo ibili beraz, nire ametsen gainean baitzabiltza”. Azkeneko LARRUN gehigarria eta Iruñean egin zuen agerraldiaren harira, bai, nik ere Zizek aipatu behar dut, “dagoeneko ez gaude inon libre”. Gehigarriaren edukiez poztu nintzela esan beharra dut, nahiz eta lerro artean uler daitekeen emakumeok antza ez dugula Zizek irakurtzen. Bertan biltzen ziren artikuluak goitik behera irakurri ostean: sinatzaileen artean emakumerik ez, eta izen eta eduki andanan apenas emakume izpirik. Jenny Holzer artistarekin batera, Leninen emaztearen aipamena eta Zizeken emaztea beraren aipamena salbu. Euskal Herria aztertzeke Zizek lagungarria zaigula argiro idazten du Joseba Zulaikak gehigarrian: “Ez dago beste Nagusirik” edo “Emakumea ez da existitzen”. Eta Zizek berak honakoa zioen hitzaldiaren harira *Berrian* egin zioten elkarrizketan: ez zaiela erantzun behar gizarteak dituen arazoei bakarrik, arazoak planteatzeko modua bera ere kritikatu behar dela. Lau hitzetan: “Erradikalkiago pentsatu behar dugu”, dio esloveniarrak.

Orain urte batzuk Bilbora gonbidatu genuen Zizek, Periferiak Topaketetan parte-hartzera. Hitzaldia emateaz gain, Joseba Zulaikarekin solasaldia proposatu genion. Bere arrazoiak izango zituen gonbiteari ezetz esateko. Guztiz ulergarria da, jakina, bere mailako pentsalari global batek gonbite xume bati ezezkoa ematea.

Alemaniko poeta lagun batek film bat egin zuen Zizeki buruz, *Liebe Dein Symptom wie Dich Selbst* (*Maita ezazu zeure sintoma zeure burua bezalaxe*). Bertan, eszena batean, Zizekek bere liburutegia erakusten du kameraren aurrean. Apalategi osoa plastiko garden batekin du estalia, goitik behera doan gorti-

DANI BLANCO



Iñaki Rozas



Urkiza



Padron

na baten modura. Plastikoa gora egitearekin batera azaltzen du protagonistak estalduraren zergatia: “Horrela inork ez ditu nire liburuak ukitzen”. Sintoma sintomatikoa pentsalari batentzat.

“Zure oinen azpian zabaldu ditut nire ametsak, goxo ibili beraz...”, ederrak dira Yeats poetaren hitzak. Zize-

ken ahots eta hizkuntza urdurian irudikatzen ditudanez, ametsak, goxotasuna, oinak, liburuak eta plastikoak nahasten zaizkit bere subjektu arantzatsuekin batera.

Gogoko ditut subjektu arantzadunak, haien konplexutasuna. Armiarmak, trikuak, arrosak. Armiarmek beren hondakinekin tranpak ehuntzea beti iruditu zait miresgarria. Idazketaren metafora ere bada ehuntzea. Hitzak ehundu, bata bestearekin, bata eta bestearen artean dagoen hondakinekin, arrastoekin, tolesdurekin, tranpekin. Horrexegatik ditut gogoko Louise Bourgeois zendu berriaren armiarmak ere. Jenny Holzerren hitz ikusgarriak eta Puppyaren amets goxoak baino, ezin ukatu Guggenheimen atzealdeko armiarmaren oinak eta arrautzak gogoz begiratzen ditudala. Itzalen modura luzatzen direlako zango arantzatsuak handik igarotzen diren begiraden eta urratsen ifrentzu goxotan. Itsasadarrari begira, beranduegi batzuentzat, aurrera eta atzera, betiko nasan, zutik, itsasmarearen menara. Anak azken aurreko Ttakunean zioen moduan: “Beranduegi batzuentzat, denbora eta hobetzeko grina ez baitira egundo burtsan kotizatu”. Eta José Luisek aurrekoan:

“Alfer-alferrik zen kezkatzea: ordu hartan ordu hartakoak geunden, betiko nasan, zutik”. Bitartean, “Erreala” esku artetik doakigu ihes eta ez bakarrik zentzu lacaniarrean, lengo- aia bera ere burtsaren espektakuloan kotizatzen baita egun. Ihes, itzalak Bourgeoisen armiarmatik nola, ihes, hurrengo tranpana- ren bila. ■



Gogoko ditut subjektu arantzadunak, haien konplexutasuna. Armiarmak, trikuak, arrosak. Armiarmek beren hondakinekin tranpak ehuntzea beti iruditu zait miresgarria. Idazketaren metafora ere bada ehuntzea



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta


2050. URTEA: POLITIKA EKONOMIKOA
FRUITUAK EMATEN HASI DA...

ZER ZIREN ... ?
A BAI !!!
ERRETIRATUAK
LEKU PUBLIKOETAN,
IBILTZEN ZIREN ...

... NINIAK ere
PROMENATZEN
ZITUZTEN...

... Baina zer ziren
LEKU PUBLIKOAK ... ?

... eta
NINIAK ???



Ainhoa Larrañaga

HUHEZIKO ETA LANKIKO KIDEA

Bakardadeaz

Bakardadea ez dago modan. Bakarrik zaudela edo bakarrik sentitzen zarela esatea bekatu da gaur egungo gizartean. Lantokian, familian, lagunartean, norbere herrialdean edo atzerrian... jende z inguratuta ere, zenbat aldiz sentitzen gara bakarrik?

Guk nahi ez ditugun lanak eta nahi ez ditugun lan baldintzetan jardutera etorri diren kanpotarrak datozkit burura. Euskara ezagutu ez eta zaintzen duten aitona edo amonarekin elkarriketak kostata izaten dituztenak. Zenbat ordu elkarrekin, zer esan jakin gabe eta luze pasatzen diren orduak nola bete asmatu ezinik. Kanpotarra bakarrik dago, bere jaioterri eta senideak urrun dituela. Adinekoa ere, bakarrik, bere sorterrian. Bigarrena etxean dago bakarrik, are eta justifikazio zailagoa. Gure adinduen bazterketaz jabetu al da inor? Kaleetan edo bide gorrietan gora eta behera ibiltzea dute eguneroko zeregin nagusia; hara, garai batean errespetua eta begirunea sorrarazten zuten adinekoak zela tratatzen ditugun.

Bikote harremanek ere eskaintzen dituzte makina bat bakardade ordu, bakardade modu. Sarritan maite ditugunen ondoan ematen ditugun tarteetan ere izaten dira bai, bakardade sentazio latzak. Harremana ondo ez dagoelako edo seme-alabekin gatazka edo inkomunikazio faseak bizi ditugulako. Familia harremanetako



JUDITH FERNANDEZ

krisitik ihes egitea ez da erraza baina. Gizarte honek ez du ulertzen, edo barkatzen, krisi egoera familiarrei aurre egiteko denbora hartzea edo aldi baterako edo behin betiko familia etenaren aldeko hautua egitea. Epaitzeko joera nagusi izaten da horrelakoetan.

Lantokia ere izan ohi da, bakardade espazio kutuna. Arazo, gaizki ulertu, inbidia edo beste edozein arrazoi dela medio, lantokian ere lankideen artean bakarrik egon gaitzke. Eta bakardadea oso popularra ez izan arren, apologia egingo diot gaurkoan. Bakardadera heltzeko bidea ikasgai izan ohi da eta bakardadea pairatzen/gozatzen ari garen uneetan ere, gure buruari entzuteko parada paregabea izaten dugu. Ez dago kanpoko zaratarik, isiltasunak gure barrena entzutera garamatza.

Bakardadera sarritan geldionetik ailegatzeko gara. Geratu beharra suertatzen zaigunean eta gure eguneroko abiadatik ihes egitea derrigorra denean geratzen gara bakardadearekin aurrez aurre. Orduan dator egunerokoan erantzun gabe geratzen diren galderei erantzun beharra. Orduan, aurrez aurre gure egia, gure egoera edo gure oraina. Abiada edo egitekorik ez dago, ez dago aitzakiarik gure benetako galdera zailei ihes egiteko. Ezin da bidezidorririk hartu. Iritsi da galderei erantzuteko unea. Gure buruarekin bakarrik gaudenean soilik gara gai galdera zail eta sakonei erantzuteko. ■

«
Gure buruarekin bakarrik
gaudenean soilik gara gai
galdera zail eta sakonei
erantzuteko
»

TXANDAN

Joseba Barandiaran



Amiozentesiaz ari naiz, alegia. Katuek zazpina bizitza dituztela egia bada, katua izan nahi nukeela uste dut. Bizitzan etengabeko aukerak egiten ditugu eta, ezinbestean eta aldi berean, bestelako batzuk baztertzen. Nola litzateke Oñatin bizitzen jarri eta bertakotzea? Edota Donibane Garazin? Edo itsasertzean edota Done Jakue bidean ostatu bat jarrita lekutzea? Katuek beste bizitza izanda, nire Legazpi-Bilbokoaz gain, beste zenbait ere frogatzeko aukera izango nuke. 40 urteen bueltako krisia ote? Beste garai batean

Katuen...

bizitza ere ez legoke txarto. Gaur egun, kalean ezagunen bati haurdun zaudela esan eta, haurraren sexua edo izena baino lehen, amiozentesia egin(gu) duzun galdetzen dizu. Ni behintzat seko harritzen nau. Norbaitek ezkontzera doala esan eta zein ekonomia erregimenetan galdetuko bazenio bezala da, ez? Katu izatearen abantaila bat ere bada; inor ez da arduratzen zure likido amiotikoaz. Jaten ematen dizunak erabakitzen du, zuzenean, zure zenbat kume biziko diren. Bai, duda barik: krisiak jo nau. Mikel, oporrak behar ditut. ■

Felipe Zubia Olaskoaga

MEDIKUA, ZAINKETA INTENTSIBOETAN ESPEZIALISTA

Sexu bidezko gaixotasunak berriz hemen

Asko hitz egiten da uda garaiko gaixotasunez, salmonelosiarekin edo eguzkiak eragindako erreduzearekin, esaterako. Baina topikoak hautsiz, eta Euskal Herrian ere ligatzen dela pentsatuz, eta udaran gehixeago, beste gaixotasun talde bati buruz jardun nahiko nuke, sexu bidez zabaltzen diren gaixotasunei buruz.

Gizakia bezain zaharrak badira ere, badi-rudi azkenaldian ahaztu xamarrek daudela. Bi arrazoi nagusi aipatu nahiko nituzke horretarako. Alde batetik, HIESaren (Hartutako Immuno Eskasiaren Sindromea) aurkako medikamentuen garapenak nolabait ere berarenganako beldurra alendu edo murriztu du. Eta bestetik, antisorgailuek, biharamuneko pilula azkena, haurdunaldiaren arazoa arindu digutela dirudi. Bi arrazoi hauek medio, badirudi preserbatiboen erabilera murrizten ari dela noiz behinkako sexu harremanetan, edo behintzat, ez dela behar hainbeste erabiltzen.

Astakeria galanta noski. Alde bate-tik, HIES bizi-bizirik dagoen zerbait delako, eta gaur egunean, gure artean izaten diren kasu berrien gehiengo handi bat sexu harremanen bidez har-tua delako. Medikamentuetan aurrera bago-az ere, ez da gaixotasuna sendatzerik lortu, eta arriskua hemen dago. Baina bestalde,



DANI BLANCO

badira bestelako infekzioak ere, sexu-harremanen bitartez zabal litezkeenak.

Ezagunena beharbada sifilia izango da. Urte askoan ia ezkutatua egon arren, bere intzidentzia handitzen ari da gure artean, eta nahiz eta erraz senda litekeen, askotan ez da diagnostikatzen sintoma nabarmenik ematen ez duelako, emakumeetan bereziki.

Urethritis edo tanto militarari buruz ere antzerako zerbait esan genezake. Ia bazter-tua egotetik, geroz eta kasu gehiago ikusten ari gara, jende gaztearengan bereziki. Eta nabarmen gora egin duena genitaletako herpesa da, askotan gainera kroniko bihur-tzen dena, eta sendatzen oso zaila dena. Herrialde anglosaxoietan egin du gora batez ere, baina baita gure artean ere, eta gaur egun buruko min askoren eragile da.

Hauei aurre egiteko neurriak ezagu-nak dira oso, betikoak alegia. Alde batetik, norberak erabakitzen du nore-kin oheratu ala ez, bere gorputzarekin zer egin. Baina gogoan izan beti gaixo-tasun hauek ez dutela sintomarik ema-ten askotan, eta itxura hain osasuntsu-ko neska edo mutil horrek, barnean edozein gaixotasun eraman lezakeela.

Eta beste aldetik, eta hau jakinik, barre-ra neurrien erabilera, preserbatiboa berezi-ki. Badakizue beraz. Uda garaian bagaude ere, jantzi txanoa. ■

«
Gogoan izan beti, gaixotasun
hauek ez dutela sintomarik
ematen askotan (...).
Badakizue beraz. Uda garaian
bagaude ere, jantzi txanoa
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Hau maitia zurekin, esaten diote elkari Kristianek eta Alfonsok beren *Sagarren denboran*, Martinezek, Larreategik eta Cas-trok gauzatutako kontakizunean, gu guztiak sagasti. Manex Pagolak idatzitako kantua Sao Tomeko erraietaraino eramanik, tripetatik sortu kultura organikoa bilakaturik, hango lagunekin emanik bildu nahi izan dute beren historia pertsonala, gu era batera edo bestera partai-de sentiarazi gaituen hori. Zarautzeko malekoian euskarak abertzaletu zuen Domintxineko Kristiane nerabe bihu-rria, bere ironia finez nobioa egiteko etxeko hizkuntzak balio ziola ikasi zuenean. Alfonsok gazte futbolaria,

Azken dantza

gerran hil zioten aitaren isiltasunak ireki zion ezkutuko munduaren zelaia.

Aitita ezezagun haren ilunpea argitze-ra ekin zion. ETArekin aurkitu zen. Eta lotu. Zirkunstan-tziek eraman zuten Baionara eta Kristianengan bere Mari topatu. Zirkunstantzi pean darama biziaren erdia bere Mari lagun, Saratik zazpi mila kilometrora baina etxeko. Bitartean, gurasoak galdu zaizkio despeditu ezinik, sufria-razi dizkieten torturen artean ezpatena, odola isuri bitar-tean sentitzen ez dena. Kristiane eta Alfonsok biluztu zaiz-kigu *strip-teaser*ik egin gabe, erakusten digutena kontrolpean borondatezko transmisioa xede. Borrokak adorea galdetzen zuen, eta adoretu bizi dira, ditugu. ■

BERTSO BERRIAK

Mikel Arrillaga

Potosiko minak

I

Zulo txikia dauka atetzat
ondoren sarrera gela,
pasabideak estu-estuak
giroa zinez umela.
Sarri lau hankan joan behar da
goia jotzen da bestela,
ahoa zapiz estaltzen dugu
hautsa delako itzela.
Kaskoa eta linternarekin
giri koadrila ergela,
behera heltzean gidak esan du:
“hau da laugarren nibela”.
Jose lanean ari da bertan
eta ez al da krudela?
Berak badaki berrogeita bost
urterekin hilko dela.

II

Jose goizero heltzen da hona
zortziak baino lehenago,
arratsaldeko zazpiak arte,
eta horrela luzaro.
Koka orriak bazkaltzen ditu,
eta fanta, lau bost trago.
Hori asteen zazpi egunez,
jai egiterik ez dago.
Eguneko lehen ez zuen lortzen
euro bat baino gehiago,
bost urte eta gero enpresan
igo da pixkat gorago.
Gauzak aldatzen ari dira bai.
Nola ez? Ni ados nago:
lehen esklaboak ziren langile
gaur langileak esklabo.

III

Ikasketarik ez dauka Josek,
esan zuen: zertarako?
Jakituria handirik ere
ez da behar minarako.
Sarritan piper egin ohi zuen
behar zuten lanerako,
minan jardunda eskola uzten
zuen beste baterako.
Silikosiak hil zion aitak
pasa zuen oso txarto,
minez sufritzen eman zituen
egun eta aste asko.
Baina Roberto gustura hil zen
ez arrangura, ez malko,
ospitalean opor egunak
heldu zitzaizkiolako.

IV

Potosiko mendi aberatsak
Joke utziko du pobre.
Garai batean bazuen nahiko
urre, zilar eta kobre.
Zulatutako gazta bat da gaur
eta izango da gero (e)re.
Aurpegi beltzak daude minetan
ez poz eta ez umore.
Pertsona pila hil dute bertan
ez medaila ez ohore,
euren hiletek ez dute izan
merezi beste kolore.
Apaizik ez dut minan ikusi
ez badira nonbait gorde,
baina elizak urrez josita
daude dotore-dotore.

V

Esku batean harria dauka
eta bestean burdina,
kolperik kolpe beti zarata
eta erritmo berdina.
Ez segurtasun neurri eta
ez zulatze makina,
lur azaletik ehun metrora
egiten du ahalegina.
Gustuko duen galdetu eta
ezetz esan dit, jakina:
“bizitzeko lan egin behar da
eta lortu etekina”.
Bi mila eta bederatzian
hau da bihotzeko mina!
Erdi Aroan dago oraindik
Potosiko behargina.

VI

Bero-bero dago lurpea
eta kanpoa hotz-hotza,
kontraste honek eragin ditu
makina bat heriotza.
Tarteka soilik gelditu ohi da
burdinaren tak-tak hotsa,
tragotxoren bat hartzeko edo
zabaltzeko koka poltsa.
Josek horiak ditu haginak
eta iluna bihotza,
dinamitaren eztanda batek
estali dio ahotsa.
Zein handia den sentitzen dudan
amorrua eta lotsa,
guk kamiseta zikintzearren
galtzen dugu bizipoza.

VII

Bera zuloan lanean utzi
eta bagoaz kanpora
burua justu kabitzen zaigun
eskaileratxoan gora.
Arnasa ezin dudanez hartu
zapitxo poltsikora
bidali eta hautsa kiloka
hasi zait heltzen ahora.
Ze itolarri, ze estuasun!
Ez da pasatzen denbora.
Klaustrofobia era hontako
sentipena izango da.
Orain tabernan trago bat hartuz
Jose datorkit gogora,
hark infernuan egiten du lan
eta ez da metafora.

VIII

Behin Potosira iritsi ziren
inperialisten tropak
azpian hartuz hango ohiturak
eta bizimodu motak.
Bertan zeudenak esklabo hartu,
lotu kate eta sokak,
eta minara bota zituzten.
Alferrik ziren borroakak.
Hango urreak dotoretzeko
noble ustelen arropak,
eliza, apaiz, artzapezpiku
politikoak, pelotak.
Handiegiak ziren, ordea
Espainiarren erronkak,
eurek gizendu zuten txerria
pozik jan zuen Europak.

IX

Bi hiru egun pasa nituen
Potosi inguruetan,
eta oso goiz hunkigarria
Cerro Ricoko minetan.
Oraindik ere oroitu eta
barrua daukat minetan,
ea guztia utz dezakekan
gaurko bertso paperetan.
Ez nuke inoiz egon nahi Josek
egun duen papeletan,
zerutik hurbil egiten du lan,
baina infernuan bertan.
Mina gogorra delako, zinez,
hitzaren zentzu bietan,
gaur daukadana baloratzen dut
eta maite dut benetan.

DOINUA: “Eguzkiak urtzen du goian”

erdiko katera

Musika

«Euskaraz edozer sor daitekeela ikusaraztea da gure belaunaldiaren ekarpen handiena»

Urte asko pasa dira Anari musikari azkoitiarrak Euskal Herriko musika panoraman lur hartu zuenetik. Bakarlari oso gutxi zegoen gure artean orduan, eta are eta gutxiago hain proposamen gordin eta goibel bezain pausatuak jorratzen zituztenak. Gutxi batzuek sinesgarritasunez eta atrebentziaz jantzitako musikaria ikusi bazuten ere, handiagoa izan zen gure mugetatik kanpo jaso zuen onespena. Anari bera eta bere kantuak asko hazi dira, izugarri, eta *Irla* izan lanarekin aurreko hiru diskoen amuekin harrapatutako hainbat eta hainbat jarraitzaile batu ditu itsaso egarriz bere inguruan.

IKER BARANDIARAN

Argazkiak: Alex Larretxi

Artista baten hirugarren diskoa ei da proba nagusia, eta *Zebrak* aurreikuspen guztiak gainditu zituen. Baina *Irla* izanen emaitza helduagoa eta osatuagoa da.

Norberak era horretara begiratzea zaila da. Aurrera egin ahala, atzekoa zure kontra bezala hasten da, denborak, ofizioak, bizitzak... beste lekuetara eramaten zaituelako. Aurretik egin duzuna ez duzu berriro egin nahi. *Habiak* askorentzat gure diskorik onena da eta nik ezin dut entzun: kantaera, giro malenkoniatsu hori... gehiegizkoa da. Gauza bera *Zebrarekin* eta honekin ere antzera izango da. Sormenean gauza naturala da hori, nik horrela bizi dut. Ni abestien atzetik bizi naiz, buruan ideia hori beti da hobia gero diskoan islatzen duzuna baino. Frustrazio moduko bat da, baina jarraitu behar duzu, beste pauso bat eman, bila zabilzan abesti hori aurkitu eta borobildu arte. Abestia da garrantzitsuena, abestiek lotzen dute zure obra jendearekin, eta zu obrarekin.

Aspaldian "Anari gara" esan ohi duzu. Zerk egiten zaituzte bat?

Konposizioan Anari naiz eta exekuzioan Anari gara. Zuzenean, diskoak grabatze-

rako orduan, beraien ekarpena oso garrantzitsua da. Nik abestiak egiten ditut, eta egin ahala buruan entzun, beraiei azaldu eta loka-lean lantzen ditugu. Hortik aurrera, nik irudi-



ka ez nitzakeen gauzak sortzen hasten dira moldaketetan. Oinarrizkoena adiskidetasuna da, baina soinuaren interesgarriena eklektizismoa da. Kide bakoitza bide desberdinetatik gatoz, urteen poderioz puntu batean bat egin dugu eta hor egiteko era bat sortu da, soinu bat, erraz errekonozitzen dena.

Gaur egun ikusten duzu zure burua agertokian bakarrik?

Horixe baietz. Beste kontzertu bat da, eta batzutan bandarekin jotzea bezain intentsoa. Abestiak gitarra eta ahotsarekin bakarrik eginen ditut, eta sinpletasun horretan eusten ez den abesti bat ez dago osatua niretzat. Abestia hitza, melodia eta interpretazioaren artean sortzen den zera oso bat bezala ikusten dut.

Disko honekin uretara salto egin eta "mugitzen ez den balea" irudikatu baduzu ere, jende asko batu zaizue, inoiz baino gehiago. Aspaldiko lanaren emaitza?

Nahiko nuke pentsatu abestiak direla, jendeak bere egiten dituela, eta behar dituela entzun zuzenean, entzun eta abestu. Gure abestiek horretarako bakarrik balio dute, ez dira irratian behin eta berriro jartzen dituztenen patroiak. Doctor Deseoko Francisek esaten dit promoziorik onena ahoz-ahokoa dela, motela baina oso indartsua, eta ados nago. Gure kasua dela uste dut. Une berezia da bizitzen ari garena; oso kontzertu beroak, ederrak ateratzen dira, jendea era horretara biltzen delako.

Itsasoa eta arrainak oso presente daude *Irla izanen* eta baita *Zebran* ere. Zer ikusten duzu itsasoan?

Obsesio bat bezala ikus daiteke kanpotik gaien errepikapen hori, nik sormenean dudak limitazioa dela onartu beharko nuke. Saiatzen

"Uste dut inoiz ez naizela orain beste identifikatu abestiekin; aurreko diskoak estetikoagoak eta estatikoagoak ziren".

naiz metaforak ideiei lotzen eta ez alderantziz; metafora bat bere horretan, kantuan behintzat, ez da hain indartsua. Gainera, kontrakoa dirudien arren, askotan metafora bera da errealena; metaforak hobeto ulertzen ditutala iruditzen zait askotan, bizitza bera baino.

"Zuri helduta baino ez naiz askatzen". Musikak asko emateaz gain, lotura handiak eragin dizkizu hain gustukoak ez direnak?

Nire lotura nahiko libre da —lotu eta libre elkartzetik badago—, gure taldean inor ez da eta profesionala. Bestalde, uste dut inoiz ez naizela orain bezala identifikatu abestiekin. Lehenengo eta bigarren diskoak estetikoagoak dira eta estatikoagoak; zuzenekoetarako gogorak: zu abesten eta jendea adi, entzuten; seko sinetsi behar dituzu hitz horiek, pixka bat kantautorearen pose horretan. Hor aldaketa kontziente bat egon da zuzenekoetan, abestiekin, hitzekin, soinuarekin, eman den aldaketarekin koherentzia batean. Batek baino gehiagok esan dit lehorra naizela zuzenean, distantea, baina banda kontzeptu hori da desberdintasuna. Kantek hitza berekin dute, besteari erredundante samarra deritzot nire kasuan.

"Behin zubi oso bat jan nuen lehenengo harritik azkenera, hainbeste nahi nuenera ez joateko".

Metafora horrek norberaren bidean ematen den retro-fagotizazioa osatzen du: zubi hori *Habiaken* eraiki nuen eta orain jan. Askotan nahiko zenuke azkeneko diskoa bakarrik idatzi izan, hurrengoa egin arte...

"Aurrean biderik ez da, norberak egina ez bada; pausu adina itzal atzean". Zu norbaiten itzalak inspiratuko zintuen; eta zu ere askorentzat itzal bihurtuko zinen...

Musika asko entzun dut eta entzuten dut, uste dut nire diskoetan bizitzako momentu desberdinetan entzun dudak musikaren zantzua dagoela. Mila abesti entzun behar dira abesti bat egiteko. Influentziak hor daude, dudarik ez, baina norberak ez ditu aukeratzen.

Badugu konplexu bat eta hau literaturaren alorrean asko ematen da. Liburu edo disko bat berritzailetzat ematen da lehen euskaraz ez bada hori egin; beraz, badirudi guk egin dezakegun gauza bakarra, gure hizkuntza txiki honekin, hizkuntza handietan egin dena "itzultzea" dela eta ez inoiz euskaratik, eta euskaraz, besteak esango lukeen moduan sortzea... Eta ezin kanpoko errekonozimenduari zain egon, edo kanpoan errekonozitzen dena hobetsi. Gurena agian ez dute kanpoan ulertuko, ez dago zertan. Nor ez da saiatu Mikel Laboaren handitasuna esplikatzeko kanpotar bati, alferriki? Baina horrek ez du dudak jartzen guretzat zein eta zer izan den.



Neu norbaiten itzal? Gehiegizkoa izango da hori. Nik nahi nuke argi izan, beste dene-kin batera, euskaraz edozer sortu daitekeela ikusarazi; uste dut gure belaunaldiaren ekarpenik handiena hori dela, erreferentzialtasuna musikan, baina, batez ere, hizkuntzan.

“Aurrean duguna sarri ikusezin bihurtzen da. Barruak, begien aldean, bista luzea dauka”. Aspaldi esaten zenuen gertuko musika taldeekin baino, itxuraz urrunago, baina zukan gertutasun estilistikoagoa zutenei begiratzeko zeniela.

Esan Ozenkin geunden, baina nik Migala, Manta Ray eta horrelakoak entzuten nituen, hori esplikatzeke era bat zen eta egia. Gainera, hemengo zenbait erreferentzia aipatzen zizkidaten, nik sekula entzun ez nituenak. Aurreko belaunaldiak sarri iraintzat hartzen du bera ez errebindikatzea.

Nik uste badugula zerbait klasifikagaitza egiten gaituena, halako nahasketa bat. Bakarleriaren kontzeptua halako soinu garbi batekin lotzen da eta gu hor narrats samar geratzen gara. Bandaren kontzeptuan, berriz, agian hitzak ez du halako pisurik kantetan, eta hor ere ez dugu enkajatzeko. Askotan sentitu dut nik neuretzat ez nituen parametroetan analizatu nautela.

Behin esan zenidan autoedizioak koste eta lan handia duela. Merezki du esfortzuak edo jarrera kontua da?

Zailena abestiak egitea izan beharko luke, eta ez da hala. Autoekoizpenaren bidean ari gara, eta maitasun handiz egindako gauzak zenbaki huts bihurtzen dira zure eskuetatik harago. Disko bat ateratzea oso gauza merkea eta erraza da; une honetan arazoa banaketan dago. Egia hori esan behar da oso egitura potenteak eraiki dituela gure aurreko belaunaldiak, eta beharrezkoak izango ziren une batean, eta bide hori jarraitzen baduzu, ez dago arazorik.

“Askotan sentitu dut nik niretzat ez nituen parametroetan analizatu nautela”

Baina izan ditzakezu hainbat arrazoi era horrekin bat ez egiteko eta banaketa ere negozioa denez, asko malkartzen da bidea.

Bidehuts bezalako proiektu bateko parte izatea, sormenaz harago, aurretik eta aurrekoengandik ikasi dugunari geuretik ematea da. Egile eskubideen gaia edo saltzeko ez diren gauzak sortzea, gauza horiek ez dute bat egiten guk lehenago genuen egiteko erarekin eta ni asko erakartzen naute horrelako arriskuek, asko ikasten da.

Zure ertza kantua da, nire ustetan, disko honetan zure betiko *tempo* berezi hori, ia pintzekin heldu behar dena irudikatzen duena...

Tempo horrek eman eta kentzen digu –jende askori oso aspergarria iruditzen zaio egiten duguna—. Lan honetan gehiago dira: *Harriaken* lehenengo zatia, *Bidea eta denbora*... Ez da erraza *tempo* hori, ezin daiteke motelegia izan, heldu egin behar zaio tentsioari. Gainera, azkeneko diskoak batera grabatzen ditugu klaketarik gabe. Benetan subjektiboa eta emozioaren arabera da kadentzia, ez da matematikoa, eta geure burukominak eragiten dizkigu.

Intentsitatearekin gero eta gehiago jokatzen duzu; eta, tarteka post-hardcorera ere heltzen zara. Zer ematen dizu intentsitate horrek?

Nik uste beti egon dela, lehenengo diskoko *Eszeptikoa*, *Herra* kanta era horretakoak dira: linealak eta hazten doazenak. *Zebran Gu* abestiak hartu zuen diozun post-hardcore ukitu hori, erritmoagatik eta soinuagatik, Txapen kantaerak neurea markatu zuelako. Oso eroso sentitzen naiz hazten doan kantaren barruan, nola hitzak ematen duen doinua eta doinuak hitza... baina berrikuntza disko honetako *Isla* bezalako kantetan dago, linealitate horretan, lehertzen ez den tentsio horretan; ez naiz hain eroso sentitzen eta uste dut ez naizela horren airoa ateratzen. ■

Yorick Liburudendan edo
www.libreriayorick.com
eskura dezakezu

**Argitaletxearen
azken argitalpena**

Baba zango-horiak
Catherine Zambon
(Itzulpena Txomin Heguy)

argitaletxea
Artezblai



San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com

Musika

Melodiaren diktadurari aurre egiten

Ondoren datorrena idazten nagoela, Iron Maiden eta gure amama etorri zaizkit gogora. Niretzat musika –oso ona gainera– dena, harentzat zarata baino ez da. Orduan, zergatik ukatzen diet musika izaera nire belarrientzat zarata besterik ez diren zenbait soinuri? Alegia, zer da musika?

UNAI BREA

EGIN DIZUTE INOIZ entzumenen ea ondo daukazun jakiteko proba horietako bat? Saia zaitez irudikatzen –soinukatzan zehatzagoa litza-teke– tinpanoen osasuna neurtzeko entzunarazten duten txistu-hots horietako bat, baina askoz ozenagoa. Ondoren zarata, burrunba, esku erraldoia aluminiozko pape-rarekin bola bat egiten... Fabrika batean bazeunde bezala, baina zeharo desatsegina-go. Horrela hamar minutu. Gitarra-jotzaile bat irten da eszenatokira ondoren. “Jo” aditzak, kasu honetan, esanahi betea du. Musika-riak, momentuz hala esan diezaiozun, jipoitu egin du tresna, lurretik arrastaka eramane du,

ostikoak jo dizkio, hamaika teknika erabili du kontserbatorioan irakasten dituztenak izan ezik... eta gitarra batean sekula entzun ez ditugun soinuak eginarazi dizkio bereari.

Horrela hasi zen, maiatzaren 28an, Bilbo-ko Zaratafest musika arraro jaialdia. Arraroa, seguru. Musika? Inkesta bat eginez gero, seguruenik %100ek erantzungo luke ezetz. Denok oso ondo baitakigu musika zer den, gertatzen dena da ez genukeela jakingo –horren beharrik bagenu– haren definizio egokia ematen.

Gure ezjakintasuna ulertzekoa da. Xabi Erkiziak, konbentzionalismoaren mugak

Ezkerrean, Ed Jared gitarra-jotzailea, Bilboko Zaratafest jaialdian. Eskuman, Alex Mendizabal musikaria, 2007ko Ertz jaialdian ur azpiko kontzertua ematen igerileku batean.



INIGO AZKONA



ASIER GOGORTZA

aspaldi gainditu zituen musikari lesakarrak, dio berez ezin daitekeela musika definitu. Saiakeratxo egin du hala ere, guk eskatuta: “Musika soinu ordenatuak dira. Hori da definizio neutroena, bidezkoena”. Zabalea ere bada, eta horrexegatik da bidezkoena.

Musika infinitua

Melodia kopurua infinitua da edo noizbait amaituko da?, galdetu izan dio batek baino gehiagok bere buruari. Galdera egite hutsak tranpa du bere baitan, musika gauza itxia balitz bezala aurkezten digulako, elementu jakin batzuekin egiten dena. Horren arabera, musika elementu horien konbinatoria izango litzateke, partituran bukatzen den zerbait. Hainbeste nota, hainbeste konbinazio. Matematika hutsa. Baina iruzurra dago hor, konbinazio berak oso emaitza desberdinak izan baititzake.

Musika ulertzeko, gauza anitz hartu behar da kontuan, gogorarazi digu Erkiziak: entzulearen egoera, interpreteak ematen dion ukitua... eta garrantzitsuenak, espazioa. “Ez da berdina musika entzutea kalean, elizan, pilotalekuan edo auditorioan. Zer gertatzen da, melodia bat nahiz eta itxita egon, espazio batek melodia horri ateratzen badizkio harmoniko gehiago? Melodia bera da, edo beste bat? Noten konbinazioari gehitu beharko genioke espazioen konbinazioa, eta ikusi beharko genuke espazio bakoitzak gehitzen dituen harmonikoek ez ote duten sortzen melodia berri bat. Ez zait iruditzen melodia partituran bukatzen denik, alderantziz, hor hasten da”.

Eskalan preso

Baina partituratik harago ere joan daiteke. Mendebaldeko kulturak eskala jakin bat erabiltzen du, eta sistema hertsia du musika transkribatzeko: hamabi tonutako eskala dodekafonikoa –Do, Re, Mi–rekin hasten den

zazpi notako segida gehi tonu erdiak–, baina joan munduko beste leku batera eta beste bat aurkituko duzu. Arazoa da Mendebalde ahalguztidunak denean agindu nahi izaten duela, eta horretan ere bai. “Etnomusikologiak egin duen akatsik handienetakoa da hori”, dio Erkiziak, “Arabiara edo Indiara joan ziren mendebaldetarrak eta hango musika hemengo moldeekin transkribatu nahi izan zuten, gure eskala dodekafonikoa besterik ez baitzuten ezagutzen”. Baina zergatik ez erabili hamabost tonutako eskala? Edo zergatik ez, besterik gabe, eskalarik gabe jokatu? Musika konkretuak, grabatutako zarata eta soinuekin egiten denak, arauak hautsi zituen XX. mendean. Zer eskalatan kokatzen ahal da auto batek egindako hotsa? Gure pentagramak ez ditu onartzen mikrotonuak, baina egon badaude: zenbat nota dago Do eta Do sostenituaren artean? Nahi beste. Muga bakarrak gure entzumenarenak dira.

“Musika konkretua hasi zenean eskandalua izan zen, baina igaro dira hamarkada batzuk eta gaingiduta dago”, dio Erkiziak. Hala ere, gaineratu du, gehienontzat musika arraroa da hori, kanonetik gehiegi aldentzen den edozein estilo bezala. Arraro diogunean, uler bedi gehienok ez dugula gustuko. Baina, musika denik ukatzeko eskubidea dugu? Auzi honek boterearekin zerikusia daukala ikusarazi digu Erkiziak: “Musika definitzeko erabili izan diren irizpideek sailkapen baten beharra salatzen dute, eta sailkapenak boterearekin dauka harremana”. Badago musikatzat ulertu behar dugunaren diktadura bat, eta diktadura horrek ezarri du aurreko orrialdeko argazkietan ageri direnak ez direla musika egiten ari, zarata baizik. Horren kontra, askatasuna aldarrikatzen du gutxiengo batek, musikaren definiezintasunak ematen duen askatasuna. Bilbon entzun genuena, orduan, musika zen ala ez? Norberak erabaki dezala. ■

**Badago musikatzat ulertu
behar dugunaren
diktadura bat, eta horrek
ezarria du zenbait musika
zarata baizik ez direla**



Elxalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com



Liburuak

KRITIKA

Anphora baita.
Pello Otxoteko.
Alberdania.
110 orrialde. 14 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona



Zati bakoitza anphora

POIESIS: ZERIZANERAKO PAUSOA manifestua plazaratu zutenen artean dago Otxoteko. Aritz Gorrotxategi, Felipe Juaristi eta Juan Ramon Makusorekin batera, poesiaren balioa berreskuratzea funtsezko ikusten du, ideietan ekiteko, transmisiorako eta arrazoiaren aurrerapenerako errebindikatuz poetika. Manifestu kide horien guztien izenak datoz *Anphora baita*ren esker emateen lehenengo orrialdean. Ariketa literario hutsetik harago doan poesia berreskuratzea du liburu honek ere helburu: auzi unibertsalen inguruan pentsatzeko modua da eurentzat poesia, eta kontzientzia horrekin idatzia dago *Anphora baita*.

Finean, egia da: greziarrentzat poetika sorkuntza osoa zen, artea bera, edo gutxienez literatura osoa. Ez uste, ordea, lirika-rik aurkituko ez duzunik liburu honetan. Irundarrak leun erabiltzen ditu, beharrezkoa denean, irudi leunak. Hala ere, nagusi da poesia filosofikoa, anforaren metaforan oinarritua. Anforaren forma borobilduek eta filosofiaren hizkuntza bihurriak ematen diote batasuna liburuari.


Kode poetikoa eta filosofikoa nahasten diren lan honetan, hortaz, moralaren auzia, denboraren joana, kosmosa... denetik kabitzen da, olioan anforan legez. Aitor Espiek egin dizkion ilustrazioetan ere ageri da bilaketa etiko hori. Anforaren "zatien bila" dabil Otxoteko, anfora osoa eta bete mundu ideial batean kokatuz: "Anphoraren barrunbea zabaltzen da/ aldiro-aldiro gauza gehiago sartuta./ Eta etengabea husten ari den Anphorak/ ba al du gutxieneko barrunberik?". Morala bada libertatearen eta zuzentasunaren azterketa egitea, *Anphora baita* moralaren inguruko liburua da, antzinateko poetek egiten zuten poetikaren bidetik. Gogoetak gogoeta dakarren liburu pausatu horietakoa da, eta abstrakzioarako joera nahitaezkoa du.

Bestalde, eta aurretik esan dugunari arean kontra eginez, galderaz beterik dago *Anphora baita*. Bertan irakurleak ez ditu aurkituko segurantzak edo heldulekuak, dudak baino. Airean bezala sentituko da lerrootara hurreratzen dena, eta nahiz eta kontzeptuak astunak izan –egia, gezurra, eboluzioa, etika, poesia, zoriona, oroimena–, poemak biziak dira, gero eta biziagoak, harik eta azken zatian aforismoaren mugetara iritsi arte. Bere bibliografia osoan lez, oraingoan ere Otxotekok barre egiten die garaiko duden, hain modernotzat dauzkagun zalantzei. Tai gabe errepikatzen den irudiarekin gogorarazten digu gizakiaren xede bakarra ahaztura izan arren maiz –sufritzeari uzteko, indibidualtasunean bakartzeko–, argi berberak jotzen duela betidanik gure anforaren ahoan, hondoa inoiz argitu ezinik. ■

Joxe Azurmendiri buruzko monografikoa

Joxe Azurmendi filosofo eta idazle zegamarri eskani dio *Hegats* literatur aldizkariak azken zenbakia. *Euskaldunak eta espainolak, Demokratik eta biolentoak, Oraingo gazte eroak* eta tankerako beste hainbat saiakera gogoangarrien egilearekin elkarriketa luzea izan du Lorea Agirrek. Euskaltzaleok "oso utzi hauskorreko argonautak" garelako dio Azurmendik elkarriketa horretan. Baina bada

gehiago ere: Xabier Mendiguren Elizegik haren liburuetan barrena bidaiatzeko proposamenak egin ditu; Ander Iturrriotzek Azurmendiren konkretutasunaz idatzi du; Igor Estankonak gazte garaian idatzitako *Hitz berdeak* poema liburua; edota Fito Rodriguezek saiakera alorrean egin duen lanaz. ■



Hegats 45.
Batzuen artean.
EIE.
214 orrialde.
7 euro.

Juan Darien, zenbakiez eta gerraz

"Zenbaki txiki txikia zen BATa. Inork ez zuen aintzat hartzen". Hitz horiekin hasten da Juan Darienek Txalaparta argitaletxearen eskutik publikatu duen *Zenbakien guda* liburua. Bakarrik dago BAT, baina egun batean KEN erregeak arma bat emango dio: KEN ikurra. Eta horri esker BATek erasotu egingo ditu gainontzeko zenbakiak, denak ZERO bihurtuko dituen arte. Matematikaren bidez, Darienek haurrei azaldu nahi die desberdina denaren aurka egiten diren gerrak zein zentzugabeak diren. Irudi ikusgarriak ditu, gainera, liburuak; collage digitalaren bidez eginak daude, egitura sinpleak baliatuz, baina berehalako inpaktua lortzen dute. ■



Zenbakien guda.
Juan Darien.
Txalaparta / OQO.
48 orrialde.
13 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Cañon.
Munlet.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 43'17".
10 euro.

Disko irekia eta aberatsa, arriskutsua eta arrakastatsua

MENDARO mapan dago eta ez edonola! Orain arte bikote formatuan ezagutu dugun Munlet taldeak sari garrantzitsua eskuratu zuen Bilbo Hiria lehiaketan eta disko honetan daukagu ondutako emaitza. Inak eta Anitak arriskua eta eraberritzea maite dute eta behin-behinean talde bilakatu dute Munlet, Eureka Hot 4 eta beste taldeetako lagunen kolaborazioarekin. Honakoan elektronikak protagonismoa galdu du: new wave eta punkaren freskotasuna gehitu dute,

elektronikaz jantzitako pop-rocka ere landu dute, surf-rocka eta garagea, funka eta baita jazz tanta batzuk ere. Rock talde estandarren ohiko gailuez gain, sintetizadore eta thereminek ukitu berezia eman diote emaitzari, eta Anitak erregistro ugari lortu ditu ahotsarekin, diskoak daukan aniztasun handia defenditu eta borobilduz. Erronka gainditu dute!

www.myspace.com/screaminguy

Munlet

«Gure musika gustuak oso irekiak dira eta ez dugu hori baztertuko onarpenaren truke»

Bikote kontzeptua apurtu duzue taldea eratzeke? Behin betiko da?

Ez. Bikote moduan bost urtetan aritu ostean, formatu handiagoa probatzeko asmoa genuen, bateria eta hori guztia. Ahalegin ikaragarria izan da, baina merezi izan du eta oso harro gaude lortutako emaitzarekin. Hala ere, beste taldeki-deek proiektu propioak dituzte; eta orain Munleteko betiko bi taldeki-deok gurean jarraituko dugu, proiektu honekin pilak ederto kargatu ostean.

Disko honetan iraganeko gordintasuna arindu eta melodiak gehiago landu dituzue...

Beno, zuzenean taldea izanda indar handiagoa daukagu, baina era berean gaur egungo emaitza rockeroagoa eta konbentzionalagoa da

bai. Eta egia da tartean pop piezak daudela, baina baita bestelakoak ere.



Oraingoan elektronika zuen osagai nagusia izan ordez, erreminta soila da.

Bai, hori izan da proiektuaren helburu nagusienetako bat. Disko honetako kantuok biok egin ditugu teklatu eta erritmo kaxarekin beti bezala, eta gero taldeak "jantzi" ditu. Gu ez gaude ezertara itxita eta hori Munleten ezaugarri garrantzi-

tsua da. Aspaldian rocka eskema eta estilo finkoetan mugatzen da, eta hori akatsa da, rocka hain errepikakorra eta motela bilakatu izanaren errudun.

Disko hau zuentzat egin al duzue? Ez al da estilo-etan irekiegia izango jende askorentzat?


Bai, lehenik eta behin guretzat egin dugu, baina baita betikoaz nekatuta dauden entzuleentzat ere. Disko bariatua da, baina aldi berean entretenigarria, bere baitan sorpresa as-

ko dituen eta soinu berriak helmuga dituen. Gu beti ahalegindu gara hortik ihes egiten. Agian asko eskatu diegu entzuleei, baina Munlet droga da 100%, adulteratu gabea, eta gure musika gustuak Stooges-etik Peaches-era doaz, Can-etik igarota... eta gehiago. Ez dugu hori guztia baztertuko, onartuagoak izatearen truke. ■

Ezpalak

JON TORNER

Sanferminetan pankarta beltzak, peñei egindako erasoen aurka



IRUÑEKO hamasei peñek beltzez margotutako pankartak aterako dituzte aurtengo Sanferminetan. Pankartetan lau mezu idatziko dituzte, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez: *Adierazpen askatasuna, Peñen aurkako erasorik ez, Sanfermin herrikoia nahi ditugu eta Sanfermin parte-hartzaileen alde*. Egitasmo historiko horren zioa argia da: Udalaren (UPNren) jarreraren kontra protesta egitea, eta festa parte-hartzaileagoak aldarrikatzea.

Azkena Rock jaialdiak 10 urte



AZKENA ROCK FESTIVAL (ARF) jaialdiak 10. urteurrena beteko du aurten. Ekainaren 24tik 26ra egingo da Gasteizko Mendizabala parkean, Mendizorrotzako kiroldegia

ondoan. Talde ezagun askok parte hartuko dute aurtengo edizioan. Horien artean daude, besteak beste, Kiss, The Jim Jones, Bob Dylan, Gov't Mule, Airbourne, Audience, Robert Gordon eta Bad Religion. Hiru egunetarako bonoak 90 euro balio du, osteguneko sarrerak 35 eta ostiral eta larunbatekoek berriz, 48 euro.



Kevin Herediak estreina-ko nobela plazaratu du: *Hor bago Kevin?* Meettok argitaletxeak kaleratutako liburu horrekin eman du Herediak irakurle izatetik idazle izate- rako behin betiko jauzia. Bizitza errealearen kronika bat da, errealitateak fikzioa gaingiditzen duenaren froga garbia. Azken urteotan literaturari buruzko zutabeak idatzi ditu Kevin Herediak *Berria* egunkarian.




Baionako artxibo berriak orain arte Pauen zeuden Ipar Euskal Herriko hainbat eta hainbat dokumentu biltzen ditu. Zehazki, 2,5 kilometro dokumentu ekarri dituzte Biarnoko hiriburutik eta horrez gain beste herriko etxeetako eta erakundeetako funtsak ere biltzen hasiak dira.

Iban Zalduak *Ipuinak. Antologia bat* (Erein) liburua kaleratu du. Bertan, bere ipuinen artean “onenak edo esanguratsuenak” bildu ditu. Zalduak bere lehenengo liburua duela 20 urte kaleratu zuen eta euskaraz idatzitako lehena duela hamar. Xabier Mendiguren Elizegik, bestalde, gazteei zuzendutako *1.002. gaur* (Pamela) abentura liburua argitaratu du.

● Haritz Rodriguez kazetariak Tokitan.tv bidaia bideobloga sortu du. Zera esan du *Berrian*:

«Bidaia txikientzako abentura handiak konstatzen dituen bloga da Tokitan. Duela urte eta erdi kamera semiprofesional bat erosi eta horrekin probatzen hasi nintzen. Lehen bidaia iaz egin nuen Grezian, itsasoan. Ideia da jendea helaraztea superheroiak izan gabe, gure txikitasunean, abentura propioak izan ditzakegula. (...) Atal bakoitzaren iraupena, batez beste, bost minutukoa da». *Berria* edo oreinen ugalketa erritualari buruzko bideoarekin –Sorian (Espainia) grabatua– hasi du bidea Rodriguezek. Astero bidaia berri baten bideoa sareratu du.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL GARCIA

Butaketatik sofara

Mugaldekoak. Zuzendariak: Fernando Bernues, Mireia Gabilondo (telefilma); Eneko Olasagasti, Mireia Gabilondo, Carlos Zabala (telesaila). Aktoreak: Mireia Gabilondo, Isidoro Fernandez, Sara Cozar. Gidoi arduraduna: Patxo Telleria. Tentazioa ekoiztetxea eta ETB. Euskal Herria. 2010

GERTAKARI ETA PASADIZO HISTORIKO GEHIAGO espero genituen. Azken finean, Bigarren Mundu Gerrako Comète sarea da istorio-aren abiapuntua, naziek kontrolaturiko lurretan eroritako pilotu ingelesei etxera itzultzen lagundu zien sarea, euskaldunek osatua. Baina telebistarako pentsatutako produktua da *Mugaldekoak*—telefilma alegia, herriz herri aurrestreinatu zutena, eta ETB1en ematen ari diren telesailaren aurrerapen eta akuilu—, eta horregatik, amodio, pasio eta gorroto istorioek hartzen dute protagonismoa, sekretuek, maitasunak, traizioek... Denbora tarte gutxian korapilatzen eta tartekatzen diren tramak beti dira baliabide ona ikuslea telebista kate beraren aurrean mantentzeko, zappingik egin ez dezan, eta hurrengo asteko kapitulurako amua botatzeko. Antzematen da telebista munduaz asko dakiela Gabilondo-Bernues tandemak—*Kutsidazu bidea*, *Ixabelekin* antzerako esperimentera egin zuten—.

Fokua lekuz aldatzea eta bide berriak jorratzea da hain justu *Mugaldekoak*en lorpenik handienetakoa, zinema telebistara eramatea. *Goenkale* eta *Martin* bezalako telesailen kostunbrismotik harago, teknika, zailtasun eta kalitate handiagoen aldeko apustua eskertzekoa da, telebistara produktu landuak iristea, nazioartean ematen ari den joerari jarraiki: zinema-aretoa utzi eta pantaila txiki-ira egin dute salto maila oneko edukiek. *House*, *Six feet under*, *The Sopranos*, *Lost*... Dagoeneko, ikus-entzunezko kultura modernoaren kontsumoa telebistara aldatu da, produktu ausartagoak eskaintzeko gai, egungo bizimodurako aproposa, eta gainera, zinema baino errentagarriagoa eta eraginkorragoa. Ez dezagun ahaztu, zinema ez da soilik magia, xarma eta lilura; industria eta negozioa ere bada. Norabide horretan, urrats bat gehiago da *Mugaldekoak*. ■

ETB.COM



Mugaldekoak proiektuko aktoreak.

UROLA JATETXEA

FERMIN CALBETON, 20
20003 DONOSTIA
© 943 423 424 · Fax: 943 424 424
urola@restauranteurola.com
www.restauranteurola.com



Ihesi

Testua eta argazkiak:

GONTZAL AGOTE

Euskal Herria ezagutuz:

Etxarri-Aranatz (Nafarroa)

Etxarri-Aranatz inguratzen duten basoetan barrena abiatuko gara txangoan, duela milaka urte hemen bizi ziren euskaldunek utzitako trikuharriei segika bidea urratzera. Trikuharriak altxatu orduko zaharra zen pagadia, berez dena baino misterioitsuago bihurtuko du bidelagun suertatu zaigun lainoak.



Etxarritik Etxarrira Arbasoen bidetik

SAKANAKO BAILARAREN Arakil azpi-eskualdean dago Etxarri-Aranatz, itsaso gainetik 500 metro inguruko altueran. 2.500 biztanle inguru ditu, Altsasuren atzetik bailarako bigarren populatuena da.

Herria ez da bereziki ikusgarria, baina ibilbide ugari egiteko abiapuntu ezin hobea da. Bertatik bertara dauden Aralar eta Andia men-

dizerrek eta baso ugariak paisaia eta ibilbide ederrak ezkutatzen dituzte, baita historiak utzitako aztarnak ere. Azken multzo horretan da trikuharrien bidea, iraganarekin eta naturarekin uztartzeko modu bikaina eta erraza, egun erdiz egiteko txango aproposa.

Oso ongi markatutako bidea da trikuharriena. Gehienetan baso

itxitik joan beharko badugu ere, ez dago galtzeko inolako arriskurik, uneoro zuhaitzetan edo bide bazterretan agertuko diren seinale hori eta berdeek esango dute ibilbidearen norabide zuzena zein den. Bidegurutzeetan ere marka horiek segitzea aski da zein bide hartu behar den jakiteko. Eta noizean behin Etxarrira itzultzeko falta den

distantzia adieraziko duten seinaleak ere agertuko dira.

Etxarri-Aranatzeko kanpina da bidearen abiapuntua eta helmuga, ibilbidea guztiz zirkularra baita. Kanpina herritik kilometro pare batera dago; Sakanako autobidetik sartuta.

Oinez errazago bizikletaz baino

Kanpinaren kanpoko aldean aparkaleku zabala dago, autoa uzteko toki egokia. Trikuharrien bidea oinez egiteko dago pentsatuta; txirrinduz ere egiten ahal da, baina horretarako sasoi ona eta trebezia handi samarra beharko dira, hainbatetan bidea arriskutsua eta pikua gertatzen ahal baita.

Kanpineko ataritik pista zabala ateratzen da, horixe bidearen hasiera. Lehen bi kilometroak errazak dira, noiz edo noiz autoak ere pasako dira. Bidegurutzera agertu eta pista eskuinean utzita ezkerretara joko dugu.

Izan ere, bi ibilbide egiten ahal ditugu: hamabost kilometro ingurukoa bata, hamar kilometrokoa bestea. Oraingoan lehena hartuko dugu, besteak beste, horretan hamar trikuharri ikusten ahal direlako. Ibilbiderik laburrenak hiru bat ordu hartzen ditu eta lauagoa da, baina bi trikuharri baizik ez ditu bidean.

Erromeria oihartzunak San Adrianen

Hirugarren kilometrora ailegatuta, San Adriango baseliza ikusiko



Hamar trikuharrien aztarnak ikusiko ditugu ibilbidean.

dugu, pagoz eta haritzez inguratutako paraje ederra. Ekainaren 16an ospatzen dute etxarriarrek santuaren omenezko eguna, eta herritik jende andana gerturatzen da bertan egiten den erromeriarekin disfrutatzeko. Baita udalbatza ere, txistulariz lagunduta. Jana eta edana ez da faltako erromerian; banatzen den ardoarekin batera, “gingirriña” –zikiroaren bertoko aldaera– eta postrerako, ohiko “piperopilek”.

Baseliza atzean utzita gorako joera hartuko du bideak, eta lokaztuta bada are zailagoa gertatuko da igoera. 500 metrotik hasita, 959 metrora ailegatuko gara seigarren kilometroan, Irumugarrieta tontorrean. Hori da trikuharrien bidearen goia; izenak argi adierazten duen moduan tontorrak hiru guneren arteko muga egiten du: Etxarri-Aranatz, Burunda eta Ataun. Izan

ere, bidearen zati handi batek Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko muga segituko du, etengabe mugarriek gogoraraziko diguten bezala.

Lainorik ez badago, bidean Aralar eta Andia ikusten ahal dira. Hala ere, ia bide osoa pagadi itxi batetik joan denez, eguzkia nekez sartuko da zuhaitz garaien artean. Lainoa bada, ordea, inguru osoari itxura misteriotsu eta hainbatetan beldurgarria emanen dio.

Eta trikuharriak?

Trikuharrien bidea dela esan, eta oraindik trikuharrien aipamenik ez apenas. Laugarren kilometroan agertuko da lehena, Beitzeta, bidetik zertxobait baztertuta. Bidean dauden trikuharriak, ongi adierazita egoteaz gain, hesituta daude. Hauek guztiak Aita Barandiaranek katalogatu zituen, 50eko hamarkadan. Kasu gehienetan aztarna gutxi batzuk gelditzen dira. Denen artean hobekien kontserbatzen dena zortzigarren kilometroan dagoen Txaradigorri da.

Azken batean, trikuharriena aitzakia baino ez da txango atsegin hau egiteko, pagadi barnean denboraz eta espazioaz ahazteko. Arbasoen arrastoei segika, pixkanaka-pixkanaka bideak beheantzen egiten du. Ibilbide hasieran bazter utzitako pistara itzulita, bost ordu pasata Etxarriko kanpinean gara bueltan. Lokatzez beterik, baina gustura. Salda beroaren ordua da. ■



etorri eta ezagutu
Etxarri Aranatz!

Etxarriko festak: uztailaren 31tik abuztuaren 5era

www.etxarriaranatz.com



ETXARRI
ARANATZko
Udala

ANA ZAMBRANO



DANI BLANCO

DANI BLANCO

ZUREZKO PIEZA LODI ETA SENDOA ----- XUMEA		TXOLINDU HURBIL		AFALDU ADITZAREN INFINITIBOA	 DANI BLANCO	UGAZTUN KARRASKARI ----- HESTEBETE MOTA		ALE, BIHI ----- NARRATS, ZIKIN		BAINU JANTZI ----- BILBOKO JAIETAKO PERTSONAIA	
ITSAS KIROL ----- PERTSONAIA- REN ABIZENA						ALTUAK, GARAIAK ----- LABORE MOTA					
				DUT (ALDE- RANTZIZ) ----- LATZ			NAHI, DESIO ----- KOLPEKA, TOPEKADAK JOZ				
LITROA ----- MUSIKA MOTA		NAFARROAKO HERRIA ----- ZURE ALDEKO						BEGIRUNEA MEREZI DUENA ----- EZINEAN			
				KEMENA ----- DONAMARIA- KO AUZOA (NAFARROA)						LETRA GREKOA ----- PERTSONAIA- REN IZENA	
ERGEL, BURUARIN	UTIKAN! ----- UFAKOA				ANIMALIA BASATIA ----- OIHANA						ELEMENTU KIMIKO
						PUTZU ----- ARRANTZA- TRESNA					
BURDINAREN SINBOLOA ----- ÁTSEGIN, ON		ZIKLOI TROIKALA ----- BURURATU						SOTO, UPATEGI ----- OSO, ERABAT			
				MINGARRIA ----- KONTSO- NANTE ERREPIKATUA						TONA ----- DEZIMETRO	
DEKLINA- BIDE-KASU ----- ZAPATUA, EBIAKOITZA						NAFARROAKO MENDIA ----- TENPERA- TURA					
								LIBURUKI			

Infernua

Aita zeharo aztoratuta:

- Aita, ni infernura joango al naiz?
– Lasai, alaba. Zuk Jesusengan sinistu eta betiereko zorientasunaz gozatuko duzu.
– Baina, aita. Pentsatu une batez nik ez dudala sinesten. Orduan infernura joango nintzateke eta zure zorientasun eternala ukituta geratuko litzateke jakinik zure alaba sufritzen ari dela infernuan.

- Ez alaba. Ez nuke sufrutuko,
- zeruan Jainkoak zoritxarreko egin
- zaitzaketen gauza guztiak ezaba-
- tzen dituelako zure memoriatik.
- Alegia –alabak–, zorion perfek-
- tuak erabateko ezjakintasuna eska-
- tzen duela.
- Hori da.
- Eta horregatik al gara kristauak?
- Bingo!

Soluzioa

	H	B				S	G	B
X	E	H	E	A		S	A	L
	S	U	R	F			G	A
B	O	R	D	A	T		G	U
L	A	Z			T	A	D	U
		U	T	I	K	P	I	Z
B	U	R	U	G	A	B	E	I
	F	E			U	R	A	K
J	A	T	O	R		S	A	M
	D	A	T	I	B	O		
L	A	R	U	N	B	A	T	A

ZIZTADAK



*Erlamandoen lasterketa,
erlauntzara itzulera eta erlezain burutsua.*

*Egin zaitez 3 jolas hauen bidez
erle esploratzaile prestua.*

>>> 5 urtetik gorakoentzat



Eskaerak:

© 943 371 545

www.argia.com


denda@argia.com

Prezioa:

29€

**ARGIAren
harpidedunek:**

-%15



**argia
JOLASAK**

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Mexikoko Golkoko petrolio-ihesa, gero eta larriagoa

EDO INORK EZ DU EGIA ESATEN edo inork ez daki benetan zer gertatzen ari den. Ihesa gertatu eta gutxira, egunero 1.000 edo 2.000 petrolio tona isurtzen zirela esaten zen, baina une honetan gauza ziurra da egunero 4.000 tona gutxienez isurtzen direla. AEBetako hego-ekialdeko hainbat estatutako kostaldeetan nabaritzen hasi dira jada petrolio-orbanen eragina.



WWW.THEMARITIMEBLOG.COM

160 milioi tonatik gora isuri dira ekainaren 10era bitartean, eta amaiera ez da hurbil ikusten. Orain beste kezka iturri bat gehitu zaio lehengoari: zer gertatzen ari da itsas hondoa? Petrolioak urak baino dentsitate txikiagoa duenez, berez lurrazalera jotzen du, baina isuria 1.500 metroko sakoneran gertatu denez zientzialariek ez dakite ziur petrolioak zer portaera izango duen. Izan ere, zientzialariek hainbat sakoneratan petrolio-ibaiak detektatu dituzte urarekin nahastuta, eta erabat ezezaguna da ibai horiek zer eragin izango duten inguruko ekosistemetan.

Bakterio bidezko eguzki-panelak?

BAKTERIO PURPURA DEITUTAKOAK Lurrean sortutako lehen bizidunetakoak dira, eta funtsezkoak izan dira bizia garatu ahal izateko.

Bakterio hau ingurune urtsuetan bizi da: lakuetan, itsas hondotan —koralezko arrezifeetan batez ere—, eta beraren jarduerak aurrera eramateko eguzkitik hartzen du energia. Miamiko Unibertsitateko ikerlari



FADWEB.ORG

talde batek, Neil Johnsonen zuzendaritzapean, bakterioek eguzkiaren energia transformatzeko duten ahalmena aztertu eta panel fotovoltaikoetan nola aplikatu jakin nahi dute. Diotenez, bakterioek erakutsiko digute nola hobetu errendimendua, eguzkiaren energia elektrizitate bihurtzeko garaian.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

Izan daiteke chinkungunya epidemia bat Frantzian?

Aedes albopictus espezieko eltxoak, besteak beste, chinkungunya eta denge gaixotasun larriak transmititzen ditu, eta antza denez Marseilla inguruan detektatua izan da. 2004an Alpeetan ere detektatu zuten. Alarma guztiak piztu dira Frantzian.

<http://ttiki.com/14283> (Frantsesez)

Autismoaren ikerkuntzan aurrerapausoak

Hamaika estatutako 177 zientzialarik parte hartu duten lan baten berri eman da *Nature* aldizkarian. Bertan adierazi dutenez, autismoan eragina izan dezakete genomak gertatzen diren zenbait aldaketak, alegia, ADN zatiak galtzeak edota bikoizteak.

<http://ttiki.com/14284> (Frantsesez)

Marrubiak aproposak dira Lurretik at landatzeko

Hamarkada batzuk barru espazio-bidaia luzeak egingo direla aurreikusten da, eta dagoeneko dieta aproposak aztertzen ari dira horretarako. Purdue Unibertsitateko (Indiana, AEB) ikerlariak marrubiaren abantailak aipatu dituzte: energia gutxi eta mantenu-lan txikia behar dira marrubiak hazteko.

<http://ttiki.com/14286> (Gaztelaniaz)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Lepaluzeak

ZETA HARRAK marugatzearen (*Morus alba*) edo haritzaren (*Quercus robur*) hostoa, hortzerara duena, jaten duen bezala, animalia gehienok hostoren bat edo beste jan behar izaten dugu. Beharko! Landareek beren kasa, beste inor jan beharrik gabe bizimoduari eusten diote. Guk, animalioek, bizi nahi badugu beste bizidun batzuk jan beste erremediorik ez dugu. Bizitzeko hil egin behar... Urtea joan eta milurtekoa etorri, landare gajoez hortzetatik babesten ikasi behar izan dute. Eboluzioaren bilakaeran bakoitzak bere trikimailuak asmatu, antolatu, ondu eta zorroztu ditu.

Batzuek hostoa bera egokitu eta arantzez josi dute. Gorostia, *Ilex aquifolium*, hauetakoa dugu. Aziendak eta bestelako hosto-jaleak iristen direnerainoko hostoak arantzadunak zabalduko ditu, handik gorakoak, orde, ertza leun-leuna dutenak. Inork jateko beldurrik ez dagoen hostoak arantzaz hornitzen zertan energia alferrik galdu?

Beste batzuek, hostoetan beharrean, arantzak egurrean dituzte: elorriek (zuria, *Crataegus sp.*, eta beltza, *Prunus spinosa*), arkakaratsak (*Rosa canina*), laharak (*Rubus fruticosus*), sasi-akaziak (*Robinia pseudoacacia*), akaziak (*Acacia sp.*)... Edozeinek hurbiltzen ditu

ezpain leun sotilak edo mingain sentikorra arantza hauetara... Animalioek badakigu, baina, landare hauei kosk egitez gero, puja erabat egurtu eta gogortu aurretik egin behar. Ardiak laharri honelaxe heltzen dio, puntta berri gozoenetik.

Bada Afrikan ardiarena egiten duen beste berde-jale bat, jirafa. *Acacia xanthophloea*, akazia handien gainera lepoa luzatu eta bertako adarretako kimuak jaten ditu, arantza bigunak ere jangarri. Jirafaren moduan, akazia ere ez da motza, eta bere burua babesteko hostoa mingosten duen substantzia bat eransten dio. Alarma ere pizten du, inguruko akaziek jirafak aldean dabilatzala jakin eta substantzia hori hostoetara eraman dezaten abisua zabaltzen du, airez hedatzen den "leherketa" baten bidez, agidanean. Jirafa ere, lepo eta guzti, motz ez eta haizearen kontrako aldetik hurreratuko da akaziara.



STATIC.ZOOMR.COM



JAKOBA ERREKONDO

Babesa

Urteko gau motzenetan gaude. Hau irakurtzen duzunerako eguna moztan hasia izango da. Solstizioa, jai eta ospakizun giroa. Atari, baratze, soro, sagasti eta abarretan, aldeko ditugun indar sakratuak eta gure izpiritualtasunaren ekina biltzeko babes landareak jartzeko garaia: elorri zuria (*Crataegus sp.*) eta batez ere lizarra (*Fraxinus excelsior*). Toki askotan irekita harrapatutako edozein lorez lagunduta, arrosa, malba arrunta...

Lore-lan
Lurez S. Coop.

Lorezaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 • Faxa: 943 79 49 12 • lorelan@euskalnet.net

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Beti-Jai betiko

MADRIL, 1891. Jose Arana Eskoriatzako enpresario ezagunak Espainiako hiriburuan frontoi bat eraikitzeke eskatu zion Joaquín de Rucoba arkitektoari. Frontoia Donostiako Beti-Jairen ereduari jarraituz eraiki behar zuten, baina Madrilen egonda, Donostiakoa baino hobe eta handiagoa izan behar zuen. Bi urte geroago hasi ziren lanak Marqués de Riscal kanean, Castellana pasealekuaren alboan. Garaiko teknikarik berritzaileenak erabili zituzten, hau da, burdinazko egitura arin eta kurboak.

Madrilgo Beti-Jai 1894ko maiatzaren 29an inauguratu zuten. Arratsalde hartan Portalek eta Pasie-


guitok Beloki eta Tandileroren aurka jokatu zuten. Eserleku merkeenak pezeta batean ordaindu ziren eta palkoan egoteak, aldiz, 25 pezeta balio zuen.

Lehen urte horietan, pilotaz gain, beste ekitaldi batzuk ere burutu zituzten frontoian: kontzertuak –1897an Iruñeko Orfeoia izan zen–, zaldi eraketak... Baina ikuskizunak berehala amaitu ziren eta 1904an Beti-Jai Aeronautika Entseguen Zentro bilakatu zen. Hiru urte geroago pilota berpiztu nahi izan zuten, eta hainbat partida antolatu zituzten. Ez zuten arrakastarik izan, besteak beste, prentsak ez zuelako lagundu gainbehera zetorren ikuskizuna saltzen. 1907ko maiatzaren 4an ABC egunkariak zioenez, “Beti-Jai enpresak aurkezten dizkigun pilotariak ikusi baino, hobe duzue etxean lasai gelditu”.

1913 eta 1916 urteen artean, Militarren Eskolaren egoitza bihurtu zen, ikasleek bertan praktikak egin zituzten. Beti-Jaiko azken pilota partida 1918an jokatu zen eta hurrengo bi urteetan Studebaker auto fabrikatzaileak erabili zuen eraikina. 1924an garaje bat eraikitzeke baimena eskatu arren, ekimen horrek ez zuen aurrera egin.

36ko Gerran komisaria eta presondegi gisa erabili zuten, eta gerra amaituta, Falangeko musika bandak entseguak bertan egiten hasi ziren. Ordutik aurrera, eraikina abandonatuta egon da. Trantsizioan hasi ziren Beti-Jai babesteko ahaleginak, baina ondareari eutsi nahi ziotenez gain, espekulatzailerik ere interesa agertu zuten hiriaren erdiguneko orube garestiari etekina ateratzen.

Zabortegi bihurtua, eraikina bota eta hotel bat eraikitzekotan zirela, Kultura Intereseko Ondare izendatu dute Beti-Jai. Horrenbestez, legeak frontoia zaharberritzera eta gordetzera behartzen ditu Madrilgo agintariak.



WWW.STATIC.COM



WWW.EUSKALJAIALAI.COM

Goiko argazkian, Madrilgo Beti-Jai, XX. mendearen hasieran. Azpian, frontoiaren azken urteotako egoera tamalgarria. Frontoia galzorian egon da, Kultura Intereseko Ondare izendatu duten arte.

Arrastoak


Ponpeian taberna ireki dute 1.900 urte eta gero

PONPEIAN 120 *thermopolium* edo taberna zeuden, K.o. 79an Vesubio sumendiaren erupzioak negozio horiek guztiak etenarazi zituen arte. Taberna nagusietakoa Via dell'Abbondanza ezagunean Vetutius Placidusek zeukana da (argazkian), eta horixe zabaldu berri dute, sumendiaren errautsek

estali eta 1.921 urtera. Bezeroek erromatar garaiko hainbat jaki dasta ditza-kete, esaterako, labean erretako gazta eztiarekin. Gainera, garai hartako elementu guztiei eustearren, XXI. mendeko bezeroek ere triklinioetan etzanda jateko aukera dute jatetxe zaharberrian.



WWW.TERRAANTIQUAE.COM



Joseba
Zulaika

«Kontraterroristari dena iruditzen zaio eromena, kriminalitatea eta tabua»

Konbentzio gutxi Joseba Zulaikaren lanetan. Gogoeta ageri da beraren ikerketan, eta arriskuak. Azterketa zehatzaren ondoko interpretazioa, hainbat autore bidelagun hartuta. *Terrorism. The Self-fulfilling Prophecy* (Chicagoko Unibertsitatea, 2009) argitaratu zuen iaz, kontraterroismo diskurtsoaren barrunbeetara bidaia.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Terrorism zuen izena ingelesezko liburuak. Gaztelaniaz, kontraterroismo hitza ageri du Alberdania argitaletxearen izenburuan: *Contraterrorismo USA. Profecía y Trampa...*

Izena bata zein bestea izan, nik kontraterroismoa kritikatzan dut lan honetan. Funtsean, nik zera diot, kontraterroismoak terrorismoa areagotzen duela. Nahikoa da AEBetako historiari begiratzea. World Trade Centerren kontrako lehenengo atentatua [1993] parte

hartu zutenek, aurretik kontraterroismo lanak eginak zituzten Afganistanen, AEBetako armadarentzat. Alegia, neurri batean, kontraterroismoak sortu zuen terrorismoa. Zenbait ekintza kontraterroista nekez ulertzen dira haien aurrekariak ezagutu gabe... Bigarren kritika bat ere egiten diot kontraterroismoari. Alegia, zergatik utzi zuten Irailaren 11koa gerta zedin, atentatugileak hemen zirela jakinda. CIAk bazekien suizida haietako batzuk

hemen zirela, informazioa zuen, baina ez zion FBIri jakinarazi... Agentzia horien artean komunikaziorik ez dagoela diote, baina nire ustez, hori baino gehiago dago hor.

Zer, esaterako?

Kultura kontraterroista halako bat, zeharo itsua, agerian dagoena ere ikustea galarazten duena. Oso ebidenteak baitzen Irailaren 11n zer zetorren. Badiotsut, kultura horren kritika egiten dut nik, terrorismoa bera



"Beste autore batzuk ere neurri kontraterroristen egokitasuna ezbaian jartzen ari dira, baina tesia modu gordin honetan agertzen, neu azaldu naiz, bakarrik".

areagotzen duelako, batetik, eta hartu beharreko neurriak hartzen ez dituelako, bestetik, ezjakintasun eta aurreiritziengatik, eta fenomeno bera tabu bihurtzeagatik. Azken batean, kontraterrorismoaren diskurtsoaren kritika egiten dut, barnetik.

Kontraterrorismo lanetan ari direnen ezjakintasuna salatu duzu. Ba ote? Ezjakintasuna, hainbeste datu eta informazioaren jabe izanik?

Ignorantzia sistematiko bat da, batetik, eta ignorantzia inkontziente bat, bestetik. Lacanek dio ignorantziaren grina bizi dugula; alegia, jakin nahi ez ditugun gauzak ez jakiteko ahaleaginean bizi garela. Hori ageri da Wall Streeten kolapsoaren atzean ere: ez genuen lehenago ikusi, ez genuelako ikusi nahi, baina ikusi nahi izan zuenak bazeukan non eta zeri begiratu. Gure ignorantzia interesatua da, deliberatua. Gure buruen kontra datozen datu eta jakingarriak ez ditugu ikusi nahi.

Zer dugu zure lanak dakarren mezurik garrantzikoena?

Kultura kontraterroristak, dela inkontzienteki, dela sistematikoki, terrorismoa areagotzen duela. Terrorismoa areagotzeko produktu bihurtu dela kontraterrorismoa. Ni ez ezik, beste autore batzuk ere neurri kontraterroristen egokitasuna ezbaian jartzen ari dira. Badira, nireaz beste, hainbat liburu, etengabeko alarma salatzen dutenak, exagerazioa denuntziatzen dutenak, baina tesia modu gordin honetan agertzen, neu azaldu naiz, bakarrik.

Ez da harrigarri AEBetako hiritarrak kontraterrorismoa bere horretan onartzea, harekin bat egitea, tropen lana itsu-itsuan gorestea?

Beldurraren kultura dago horren atzean. Arrazoi asko dago kultura horrentzat. Hondamendiak direnean —hondamendi naturalak zein bestelakoak—, beldur izateko arrazoiak daude, une apokaliptiko batean bizi garela pentsatzeko argudioak. Beldurak forma konkretuak hartu behar ditu, eta horietako bat da terrorismoa. Nire ustez, beldur hori arma nuklearren aukerari zeharo lotuta dago. Adibidez, zerk justifikatu zuen Saddam Husseinen kontra joatea? Hark arma nuklearrrik eduki zezakeelako aurreusteak —suposizioa baitzen, ez besterik—,

"Munduan hainbat buru nuklear izatea izan beharrean arazoa, talde terroristek ere haiek eduki nahi dituztela da problema!"

eta indar nuklear hori talde terroristaren baten esku utzi ahal izateak. Talde terrorista batek, bonba nuklearra eskuetan, zer egin ote zezakeen pentsatzen hasi, eta beldurtu egin zen jendea. Bestelako talde gerrillariak —dela IRAk, dela ETAk—, ez dute, berez, beldurrik sortzen. Talde horiek arma nuklearrak edukitzeak dakar beldurra. Arma nuklearrei lotuta dagoen beldur parasito bat da. Eta, horrekin

batera, itsukeria. Hemen ez da eztabaidatzen arma nuklearrak zenbateraino zabaldu diren munduan, herrialde jakin batzuek haien gaineko kontrolik ez dutela baizik. "Gu arma nuklearren jabe, bai. Gure etsaiak, ez". Arma nuklearren jabe diren herrialdeen kopurua laster gaur halako bi izan litekeenean, hori konpondu ordez, talde terroristak arma nuklearren jabe izan litezkeela bihurtu da arazo. Itsukeria galanta, desplazamendua: munduan han eta hemen hainbat buru nuklear izatea izan beharrean arazoa, talde terroristek ere haiek eduki nahi dituztela da problema! Benetako arazoak zein diren ez dute jakin nahi.

Irailaren 11ko erasoaren ondoren areagotu zen kontraterrorismoa. War on Terror jaso zuen izena hemen. Afganistan eta Irak, jomuga.

Afganistango gerrak nahiko onarpen zabala izan zuen hemen, eraso handik etorri zelakoan. Irakekoa, aldiz, gerra prebentiboaren eredu da, ez du justifikaziorik, ez dago ulertzeko modurik, administrazio eskuin indarren —"belatzak", esaten da hemen—, esku hartze gabe. Hedabideak engainatu zituzten, beste behin, Saddam Husseinek arma nuklearrak zituelako aitzakian. Gezurraren gainean eraiki zuten gerra, alarma faltsu bat oinarri. Gezur hura esan zutenean, edo berdin beste gezur batzuk esaten dituztenean, partez intentzio gaiztoz ari dira, eta partez —parte handiagoz, nire iritziz—, beldurraren kulturaz baliatzen dira. Gerora jakin izan dugunez, Saddam Husseinek

berak piztu zituen arma nuklearrak zituelako seinaleak. Bere etsaiak kikiltzeko asmotan ari zen, ez ziezaioten eraso. Bluff bat zen, baina CIA eta gainerako informazio agentziak ez ziren hura behar bezala ulertzeko gauza izan. Horixe dago okerra: seinaleak behar bezala ez ulertzen. Horrexek ematen du ondoen, nire iritziz, kultura kontraterroristaren neurria. Kultura horrek tabu bihurtzen du dena, denok itsutze-raino. Beldur irrazional baten gainean eraikitzen da diskurtsoa, eta ez diren bezala ikusten eta ulertzen dira gauzak.

**"Euskaldunok
kontraterrorismo
diskurtso horren
barruan sartuta
egoten uztea
kaltegarri da
zeharo"**

**Nola eman amaiera
terrorismoa areagotzen duen
kontraterrorismo diskurtsoari?**

Arma nuklearren auzia konpontzea da giltza. Hori konpondu ezean, terrorismo arriskuak beti iraungo du. Bomba nuklearra duten herrialdeek sasoi batean agindutakoa bete behar dute, hau da, arma-biltegiak desegin. Heldu da garaia, ezarritako epea. Baina desegiten ez direnez, horixe irauten du arriskuak. Obamaren politika esperantzagarria da puntu horretan. Horri eutsi beharko diogu. Bestalde, injustizia eta ezberdintasun sozialetatik datoz terrorismoa eta biolentzia. Badira elementu kulturalak eta fundamentalistak, eta horiek ere konpondu beharra dago, baina biolentzia mundutik desagertuko dela pentsatzea nahiko gauza injenuoa da. Beti egongo da biolentzia, era batekoa zein beste-koa. Baina biolentzia sistematiko eta estrategiko halako batek gaur egungo koiunturari besterik ez dio erantzuten, eta mundu nuklear honi lotuta dago, ez besterik.

Basque Violence. Metaphor and Sacrament (1988), *Terror and Taboo* (1996), oraingo *Terrorism* (2009)... Aztergai nagusi bat duzu, ildo bat zure antropologo bizian...

Itziarri buruzko lana egin nuen *Basque Violence* hartan, eta ondoren etorri direnetan, berriz, *Terror and Taboo* eta *Terrorism* lanetan, han deskribatu nuen errealitatea beste era batera aztertu dut. Alegia, lan berriotan diskurtsoa bera aztertu dut, itsutu egiten gaituelako. Diskurtsoak ezkututzen duen mitoa interesatzen zait, egiaren aurkako diskurtsoa, diskurtso itsu hori. Diskurtsoa barrutik desmuntatzeko behar intelektuala sentitu dut eta, egia esan beharko banu, Itziarri eta Euskal Herriko mundua ezagutzen ditudalako egin dut.

Zertan da gure biolentzia egoeraren azterketa?

Euskal arazoari begiratu eta konaturatu naiz geure buruak kontraterrorismo diskurtso horren barruan sartuta egoten uztea kaltegarri dela zeharo. "Gu ez gara terrorista, kanpokoek esaten dute hori!". Ez da nahikoa. Mundu guztiak esaten badu, errealitatea da, egia izan, gezurra izan. Euskalduna terrorismo diskurtso horren barruan kokatuta egotea gure interesen kontrakoa da zeharo, guztiz kaltegarria. Euskal Ikasketen Zentro honen eginkizuna, besteak beste, hemen bertako munduaren eta Euskal Herrikoaren artean bitartekari lan intelektuala egitea denez, diskurtso hori hankaz gora jartzen saiatu naiz, aldi berean geure buruoi adieraziz ez dagoela Euskal Herriaren interes politiko eta kulturalen kontrako bidegabekeria handiagorik gu diskurtso horretan nahastuta agertzea baino. Biolentziaren sustrai erlijiosoak, politikoak, inkontzienteak aztertu nituen Itziarren, ulertzen ditut eta estimatzen ditut sustrai horiek, baina politikoki eta estrategikoki begiraturik mingarri zait oso. ■

argia.com Joseba Zulaikaren argibide gehiago elkarrizketaren bertsio luzean.

Atxaspi Hotela



Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com

Bikoizketa euskarara

Haurrak ohitu dira, helduak ez

Urteak joan dira indioak euskaraz berbetan ikusita gure aitita pantailari adi zurtz eginda geratzen zenetik. Ohitu egin da ikuslea bikoiztutako telebista saioetara. Hainbeste ohitu da ezen askotan arrotz zaion, kasurako, Songokuren erdal ahotsa.

MIREN IBARLUZEA

JARDUNEZ hobetzen den neurrian, euskarara bikoiztutako produktuen kalitateak gora egin duela jakina da. Alabaina, euskal kulturaren esparrua ez da zabalegia, eta gutxi dira euskal bikoizleen ahotsak. Horrek sinesgarritasuna lapurtzen dio egingako lanari, lantzean atzerriko aktorearen ahotsa ezagututa bertoko aktore baten irudia baitakargu gogora, adibidez. Ez da kontu erraza baina, gero eta ordu gutxiago bikoizteko eskaria baitute bikoizketa etxeek. Ikus-entzunezko itzulpenaren mundua txikia da, oso hermetikoa, zaila da ikus-entzunezko testuen itzultzaile-egokitzale edo bikoizleen munduan sartzea. Normalean, gainera, ez dute langileok langintza hori soilik izaten euren bizibidea.

Joan zen Irrati-Telebista eskola sortu zeneko sasoia, egun bikoizketa-etxeek prestatzen dituzte profesionalak. Josu Barambones irakaslea ere, EHuko Itzulpengintza eta Interpretazio lizentziaturako ikastaroetan, saiatzen da bere ikasleei ikus-entzunezko testuen itzulpenaren panoramika eskaintzen. Ikus-entzunezko itzulpenaren egoeraren errepasoa egin eta teknikak irakasten dizkie ikasleei; izan ere, ikus-entzunezkoak itzultzeko teknikak garaitiko testuetatik aldentzen dira: konbentzio jakin batzuk lantzen dira, testuetan erabili beharreko sinbolo jakin batzuen erabileraren jabe izan behar du itzultzaileak; muga teknikoei aurre egin behar zaie,



Josu Barambones EHuko irakaslea *Burdinaho* eta *Berebiziko espioiak* marrazki bizidunen bikoizketan erabiltzen den euskara aztertu du.

mezua bi kanaletatik baitator, ikusizkotik eta entzunezkotik, eta irudiak agintzen du, horixe da ikus-entzunezko itzulpenaren maxima.

Ikus-entzunezkoen itzulpena eta bikoizketa ez eze, telebista egiteko modua ere asko aldatu da EITB bera hazten eta heltzen joan den heinean. Saioak erabat ezberdinak dira gaurko telebista hasi zenekoaz alderatuz gero, programazio erduek bilakaera nabarmena jasan dute eta.

Bikoizketak Euskal Telebistan duen presentziaren azterketa sakona dakarkigu, hain zuzen ere, Josu Barambonesek irakurri berri duen tesian. Gasteiztarrak ETB1en kanpo emisioa aztertu du, eta ikerketa soziokultural hori oinarri har-

tuta, bikoiztutako zenbait testuren azterketa linguistikoa burutu du.

Aitorpen gutxi bikoizketari

Ikerketa horretatik ateratako ondorioak irakur daitezke bere tesiaren azken kapituluari: oro har, bikoizketan dabilzan profesionalen errekonozimendua urria da oso, bikoiztutako bertsioetan ez da bikoizketaren egileen aipamenik agertzen. Normalean, itzulpena jatorrizko testuari lotzen zaio erabat, eta kasurako, cowboy bezalako berbak zuzen-zuzenean hartzen dira. Badira, alabaina, gureru egokitu diren kultur-erreferentziak ere. Naturalizaziora jotzen da, eta irudietan agertzen diren idatzizko kodeak off-ahots batek ematen

ditu euskaraz. Itzulpen tekniken artean sarri jotzen da deskribapenera eta esplizitaziora. Halaber, erredukzioa eta modulazioa (esapideak egokitzea, kasurako) ere erabiltzen dira, batez ere testua irudiarrekin batera joan dadin. Bikoiztutako testuetako ahoskera Euskaltzaindiak markatutako arauetara lotzen zaio. Jatorrizko euskal testuetan, baina, lizentzia gehiago hartzeko ohitura dago. Bikoiztutako testuetako erregistroa jasoa izaten da, eta idatzizko ereduari jarraitzen zaio, askotan estilo alde-rik nolabait jaso egiten delarik. Asmo didaktikoekin du zerikusia horrek. Ahozko erregistroaren falta igartzen da. Dena den, gauza bera gertatzen da jatorrizko euskal lanetan, ahozko espresioak kalkoak izaten direlarik, euskarazko ahozko esapide zuzenen kaltean.

Josu Barambones irakasleak berak azaldu digun gisan, erraz baieztatu daiteke ETB1ek emititzen dituen generoak dokumentalak, marrazki bizidunak eta filmak diren arren, marrazki bizidunak nagusi direla erabat, filmek oso leku gutxi dute gaur eguneko programazioan. Euskal Telebistaren lehen hamar urteetan, oster, filmak pisu gehiago zuten. Halaber, ETB2 kanpotik ekarritako telesailen mukurua dagoen artean, ETB1en ez da ia halakorik emititzen. Oso desberdinak dira programazio ereduak EITBren telebista kateetan, eta ugari dira horren arrazoiak. Arrazoiak bat euskararen egoera da; izan ere, ETB1ek eskola sistemaren jarraipena izan nahi du, eta hargatik bereizten da gainerako telebista publikoetatik marrazki bizidunen eskaintza zabal-zabalararekin. Telesailak eta filmak gaztelaniazko katean ematearen arrazoiak, oster, telebista generalisten ereduarekin lotuta dago; euskarara egin beharreko bikoizketa ETBk ordaintzen du

oso-osoan, eta gaztelaniakoaren gastuak, oster, FORTA erakundea osatzen duten telebista autonomikoen artean banatzen dira. EITBren programazioan aipatzekoa da etxeko produktuen indarra eta pisua. Telesail bat etxean ekoiztea, kasurako, askoz ere garestiagoa da atzerriko telesail bat erosi eta bikoiztea baino. Halatan ere honakoan bestelakoak dira programazioa baldintzatzen duten faktoreak eta botere jokoak.

Euskaraz sortua sinesgarriagoa

Programazio ereduaz aztertuta eta kanpotik ekarritako generoen artean marrazki bizidunak gailentzen direla ikusita, *Burdinaboa* eta *Berebiziko espioiak* telesailak hamar kapitulu aztertu ditu Josu Barambonesek bere tesian,

Oso obra gutxi dira euskaraz sortuak, eta hortaz, erreferentzia gutxi dute ikus-entzunezko testuen itzultzaile-egokitzaileek, literatur itzultzaileen aldean

marrazki bizidunetako testuak baitira, nolabait, testurik errepresentatiboenak euskal bikoizketan. Bi telesail horiek aukeratzeko irizpideak ere ondo zehaztuta izan ditu ikerlariak: ikus-entzunezko materiala, bideoak eta gidoiak, eskura izatea, kasurako. Bikoizketa etxe ezberdinetatik ateratako testuak dira telesail horietakoak, ingelestik itzulita sortutakoak; hartara, itzulpen joerak identifikatzeko eta aztertzeko bidea zabalik izan du ikerlariak. Jatorrizko testuak eta euskarazkoak konparatuta, eta itzulitako obrak eta Euskal Herrian bertan sortutako *Karramarroen uhar-tea* filmeko hizkuntza alderatuta

Bikoizketa etxeak

- **1980:** Irrati-telebista eskola sortu zen.
- **1981:** Lehen euskal bikoizleak lanean hasi ziren. Eskolatik Eresoinka eta Galdakao Estudios sortu ziren, gerora K2000.
- **1985:** K2000KO ZENBAIT LANGILEK EDERTRAC SORTU ZUTEN.
- **1986:** Irusoin bikoizketa etxea sortu zen.
- **2004:** Edertrac eta Irusoin bat eginda Mixer sortu zen.

jatorrizkoa sinesgarriagoa izaten dela ondorioztatu du ikerlariak, sarriago erabiltzen da hitanoa, ugarriagoak dira ahozko esapideak, lizentzia gehiago hartzen dira ahoskeran... Halatan ere, ez du horrek inolaz ere esan nahi euskarara egindako bikoizketa desegokia denik. Gainera, kontuan hartu behar da oso obra gutxi direla euskaraz sortuak, eta hortaz, erreferentzia gutxi dute ikus-entzunezko testuen itzultzaile-egokitzaileek, literatur itzultzaileen aldean.

Programazio ereduaz dela-eta, badirudi haurrak ohituta daudela bikoiztutako produktuak kontsumitzera, baina datozen urteetarako erronka jende heldua euskarara bikoiztutako telesail, film eta beste-lako saioetara ohitzea litzateke. Horretarako bide bakarra dago: euskararako bikoizketa indartzea. Azken urteetan, baina, filmak falta dira euskaraz, eta zinema aretoetan lehiatu ezin daitekeenez, berebizikoa da telebista publikoak garai bateko *Zineoro* saioaren moldeko ekimenak martxan jartzea. Josu Barambonesen beraren iritzian, pena litzateke euskarazko bikoizketak lortutako kalitatea eta baliabideak galtzea bikoizketa urrituz doalako gure kateetako programazioan. ■

Babeslea: Getxoko Udala

Getxoko autoeskolak euskaraz

ALGORTA AUTOESKOLA
AMEZTI AUTOESKOLA
ARIAS AUTOESKOLA
GETXO AUTOESKOLA
PRECIADO AUTOESKOLA
SAN INAZIO AUTOESKOLA
URIBE KOSTA AUTOESKOLA

Getxoko autoeskolak euskaraz

Getxoko Udala • AYUNTAMIENTO

EUSKARA BIZI

Berbakafea, berbalaguna... edo dena delakoa

INTERNETEN irakurri dugu ekainaren 5ean Enkarterriko Berbalaguna Berbakafea antolatu zuela bigarren aldiz. Ez dakigu hamaiketako ala merienda zen, kontua da euskara hiztun dentsitatea murrizta den tokietan desiatzen daudela hiztunak elkartu eta euskaraz aritzeko. Agurainen izan berri da Araba Euskaraz. Han ere, euskara ikasten ari diren helduak eta dakitenak mahaia inguruan biltzen dira, euskaraz aritzeko. Mahaiko batek halaxe esan zion telebistako kazetariari, agurain-

dar batzuentzat mahai buelta horixe izango zela aste osoan euskaraz aritzeko aukera bakarra. Zenbait tokitan euskara hiztunez inguratuta bizi gara eta batzuek nahikoa nagi izaten dute euskaraz aritzeko. Bestetan berriz, berbakafea, berbalaguna edo berba-afaria antolatzeke irrikitan egoten dira, ikasitako euskara mihi-ramateko desiatzen.

ENKARTERRIKO
BERBALAGUNA



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Gizartearen eta nazioen kontrako erreformak

Espainiako eta Frantziako Gobernuek erreforma sozial anti-abertzaleak eta anti-nazionalak inposatu dituzte beren Estatuetan eta Euskal Herrian —lan eta pentsio erreformak—. Finantza merkatuen interesei erantzuten dien erreformak dira, hau da, Nazioarteko Diru Funtzari eta Munduko Bankuari, bai eta Europako Banku Zentralari ere. Beraiek gidatzen dute munduko eta Europako ekonomia, banka handiaren, multinazionalen eta patronalen zerbitzura. Espainian, lan erreformak kaleratzeak merketzen ditu, mugikortasun basatiak donesten ditu, negozioak kolektiboa erasotzen du eta enpresaren kostuak gutxitzen ditu. Atzetik etorriko da pentsioen erreforma, erretreta atzeratuz eta kotizatu beharreko urteak gehituz; eta hori Frantzian jadanik erabakita dago.

Espainiako eta Frantziako langileek, ezin dute beharginen eta gizartearen kontrako horrelako erreformarik onartu, baina langile euskaldunek arrazoi gehiago dituzte erreformari kontra egiteko. Nazioen eta abertzaleen kontrako erreforma ere badelako, Madril eta Parisetik inposatua, eta ez du euskal lan harremanen markoa errespetatzen. Euskal Herria subiranoa ez den bitartean, euskal langileek marko hori exijitu beharko lukete; langileak eta sindikatu abertzaleak izan daitezela beren lan baldintzak negoziatzen dituztenak patronalarekin eta gobernuekin. Euskal Herria bere etorkizun sozial eta ekonomikoa erabakitzeko gai izan dadin, eredu politikoan aldaketa behar da.

Erreforma horiek salatzeko eta politika alternatiboak eskatzeko, greba orokorrera deitu dute bi estatuetan: ekainaren 24an Frantzian, eta irailean Espainian. Hego Euskal Herrian, aldiz, ekainaren 29rako bi deialdi daude eginak, sindikatu abertzaleena eta CC00rena. Ez da, egiaz, langile eta sindikatuen erantzun onaren adibidea. Baina, egia da, batzuen eta besteen ikuspuntua ezberdina dela. Dena den, eraso kapitalista hain basatiaren aurrean, erantzun indartsuagoa negoziatu liteke.

Juan Mari Arregi

Entitateak euskalduntzeko liburua Topagunearen eskutik

LIBURUAREN izenburua ondokoa da: *Entitateak euskalduntzeko metodologiaren garapena: elkarteetan eragiten bitzarmengintzaren bidez*. Euskara Elkartearen Federazioak argitaratutako liburua Eta kitto, Irun Iruten eta Berbaro euskara elkarteek eta Iñaki Eizmendik atondutakoa da.

BAHEA

Tiraka blogean martinrezola erabiltzaileak esanak: “Horrela ikusten dugu egungo hizkuntza-politikaren norabidea, kanpo-proiektzioan buru-belarri (nazioarteko liburu-azokak, nazioarteko hizkuntza gutxituen sareak, Etxepare Institutua...), baina etxeko sukaldea abandonatuta. Ezin daiteke uler, bestela, nola egin dakiekeen entzungor aginte-postuetatik UEMA bezalako ekimenei. UEMA ez da esistitzen, antza”.

Erabili.com webgunean Erramun Osak esanak: “Franko hil osteko demokrazia-aldian, 2009ko abenduaren hogeita hirua arte, askotan isilpean eta etenik gabe, 500 Agindu, Errege Dekretu, eta abar jarri dira indarrean Espainian jardun-eremu desberdinetan, gaztelaniaren presentzia ez ezik, haren erabilera ere ziurtatzeko, behartzeko”.

Chieko Hata Euskal Herrian bizi den japoniarrak euskara zergatik ikasi duen galdetuta HABEn esanak: “Senarraren familian guztiek hitz egiten dute euskaraz; eta, gainera, bertsolariak daude: Patxi eta Danel Goikolea. Thailandian ere thailandiera ikasi nuen, hizkuntzan dagoelako herriaren kultura. Jendea ezagutu eta ulertzeko, ezinbestekoa da hizkuntza”.

Eta orain Nafarroan zer?

ARGAZKI PRESS / LUIS JAUREGIALTZO

IRAKURKETA ugari egin daitezke ezker abertzaleak eta Eak joan den igandean sinatutako akordioaz. Pentsa liteke Batasunak topatu duela hauteskundeei aurrez aurre begiratzeko lurreratze pista. Edota Eak bere zailtasun politikoetarako aireratze pista. Akordio honetan ez dagoela ezer berririk, edo ez dela behar beste aldentzen ETArengandik, edo ea nola gauzatu den elkarlan hori hainbatetan hain desberdinak izanik... Pentsa daitezke makinatxo bat gauza eta hedabideetan ere era guztietako iritziak ispilatu dira. Baina zalantzan jarri ezin dena da era honetako akordioek abertzaleen artean, oro har, sortzen duten esperantza eta ilusioa. Orain zuzendaritzen artean jositakoa oinarrietara eramaten asmatu beharko dute.

Arrazoi askogatik potentzialitate handia duen akordioa da, baina bategatik bereziki: borroka armatuaren ondorengo garaiko abertzaleen arteko elkarlanaren oinarriak jarri dituelako. Abertzaleen arteko elkarlanerako oztopo nagusietakoa izan da borroka armatua eta azkenik berau gaingiditzen bada —eta hala dirudi— guztiz egoera berria sortuko da euskal politikan eta bereziki abertzaletasunean. Helmuga leku berean izango du abertzaletasunak, baina samurrago iristeko aukerarekin. Flandriako independentisten arrakastak erakusten du posible dela gehiago zabalak eratzeara eta Europar Batasunean estatu berriak sortzea. Eskozia, Katalunia eta Euskal Herria izan daitezke hurrengoak. Zergatik ez?

Azken 30 urteei begira, akordioak argi adierazten du aspaldion bi alderdiek azpimarratu dutena: Gernikako Estatutua agortua dago. Autodeterminazioa eta independentzia dira hurrengo helmugak. Orain ikusi beharko da adostasun



hori nola gauzatzen den eguneroko praktika politikoan, batez ere Euskal Herrian diren errealitate anitzak kontuan hartuta.

Bizi dugun abagune zehatz honi begiratuta, ezker abertzaleak bide soilik politikoak garatzeko egindako hautua blindatzen du akordioak. Orain arte, publikoki bederen, *Zutik Euskal Herrian* egindako hausnarketarekin bat egin duela adierazi du ETak, baina askoren ustez ETak ez du garbi zer egin. Orain, erakunde armatuak “prozesu demokratikoarekin” bat egiten badu, are eta hobeto; baina bat egingo ez balu ere, ezker abertzaleak tinkotasunez jarraituko luke hartutako bide berrian.

ETA NAFARROAN ZER? EA eta ezker abertzalearen arteko elkarlana aspaldikoa da eta, beraz, sinatu berri den akordioa ez da hauteskundeei begira egina. Baina hori ere bai. Udal eta foru hauteskundeak ate joka dira eta hor frogatuko da lehenbiziz akordio honen indarra. Barne Ministeriokoez aparteko arazorik ez da antzematen EAEn, baina bai Nafarroan.

Aralarren erabakia izango da giltzarri erresuma zaharrean, baina

etorkizunera begira hau ere ezin daiteke oso urruti ibili Batasunak eta Eak sinatu duten akordiotik. Aralarren oinarriek —eta batez ere boto-emaileek— begi onez ikusten dute abertzaleen arteko elkarlana eta, begirunezko elkarlana ziurtatuz gero, nekez ulertuko lukete Aralarrek bere bidea bakarka jarraitzea. Beraz, bi aukera nagusi daude Nafarroan: edo errepikatzen da orain arteko NaBai-ren formula edo Aralar, EA eta ezker abertzalearen arteko NaBai bideratzen da. Bietan ikusten dira zailtasun handiak. NaBai-ko ahots askok aldarrikatzen du 2007ko espiritura itzultzearena, baina hori dagoeneko ez da posible, lau urte geroago ETaren jardura gaingiditzeko aukera asko direlako. Eta atentaturik balego, Batasunak behar adinako distantzia jarriko lukeelako erakunde armatutik.

Hauteskundeen eremuan lehenik eta ohikoan gero, abertzaletasunak bi adierazpen handi izango dituela dirudi: batean EAJ eta bestean orain ezker abertzalea eta EA animatzen ari diren espazio burujabeak. Dena gerta liteke, baina ikuspegi horretatik aztertuta, oso zaila izango da 2007ko Nabai-ren formula errepikatzea.

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Nigeriako oiha eta soroetan datzate 50 'Exxon Valdez'

Ez inork eta ez ezerk geldiaraziko du Shell konpainiak Niger ibaiaren deltan berrogeita hamar urtez egin duen petrolio isurketa. Milioi eta erdi tonaz goiti dagoeneko. AEBek handik etxeratzen dute behar duten petrolioaren zati handi bat. Mexikoko Golkoan Deepwater Horizonek eragin kutsadurak bazterrak inarrosi ditu, Nigeriakoak ez.

NIGERIAKO HILTZORIAK TXIKI uzten du Mexikoko Golkoko marea beltza, baina hura ahaztuta daukate Europak eta AEBek". Lerro buru hori eman dio Joh Vidal erredaktore buruak *The Guardian* egunkari ingelesean agertu artikuluari. Duela bi urte beste NET HURBIL batean (*Nigeriako deltan sutan daude Shell-ekin*) orratu zen Shell konpainiaren aurka Niger ibai ondoko erriberetako jendeek egin-dako borroka, auzitegietakoa barne. Antza denez, deus gutxi kanbiatu da geroztik, John Vidalek Nigeriara egindako bidaiaren kontakizunetik kalkulatu dezakegunez.

Vidal ingurumen arloko erredaktore burua da *The Guardian*en, eta kazetari aditua. 1997an plazaratu zuen *McLibel: Burger Culture on Trial* liburua, zeinetan kontatzen duen Greenpeace erakundeko bi kidek MacDonald's multinazionalarekin izandako epaiketa luzea, Britainia Handian izan denik luzeena, salatu zutelako nola usatzen dituen hamburger marka horrek gezurrak eta edozein maltzurkeria konpainiaren estrategia kritikatzeko dutenen kontra.

Nigerian azken berrogeitamar urteotan 1,5 milioi tona petrolio isuri dela idatzi du Vidalek, World Wide Fund erakunde ingelesak eta Amnesty Internationalek emandako zifretan oinarriturik. "Hau da,

Alaskan Exxon Valdez petrolion-tziak isuri zuena halako 50".

Irakurleak pentsa lezake John Vidal esajeratzen ari dela. Kazetari honek zalantza bera eduki zuen eta petrolio isuri nagusien *ranking*aren bila hasi. Zorionez gure aurretik lan hori zehaztasunez burutu du *Reference, Facts & Resources* webguneak, orri garbi batean zerrendatuz orain artean munduak ezagutu dituen petrolio isuri larrienak, Wikipediak bakoitzaren atalean plazaratutako kopuruen arabera.

Zerrenda horrek istripu zehatzetan galdutako petrolio kopuruak biltzen ditu, ez Nigeriako kasua bezalakoak, urte luzez isurketa txikiagoz sekulako kutsadura pilatu zaienekoak. Baina proportzioak ulertzeko zerrenda polita da. Hori bai, gero norberak ordenatu behar ditu litroak, tonak, galoi amerikarrak (3,78 litro) eta upelak (159 litro).

Orain arteko isurketa handiena Kuwaiten gertatu zen 1991an: Golkoko lehen gerra deituaren amaieran militar irakiarrek biltegietako kanilak ireki eta ia bi milioi tona isuriarazi zuten. Mexikoko Golkoan 1980ko istripuaren ondorioz ia milioi erdi tona galdu zen. Kopuru horiek dagoeneko gaintituak izan-nen ditu *Macondo* eremuan sutu zen *Deepwater Horizon*-en sarraskiak, jarria azkar butxatzen ez badiote

Ondoko irudiak Niger ibarrean Kadir Van Lohuizen argazkilariak ateratako ugarietako batzuk dira. Van Lohuizen sail osoa Bilbon ikusgai dago asteotan, ekainaren 14an hasita uztailaren 16a bitartean, Ekologistak Martxan elkarteak Ekoetxean prestatu duen erakusketan. Amnesty Internationalek babestutako kolezioa da. Van Lohuizenek argazkietan bildu ditu munduko eremurik kutsatuenetako batean petrolioaren kalteen artean bizirauten ia mende erdi daramaten herritarren eguneroko lanak. Hemen arrantzaleek galdu dituzte uretako arrainak bezala haiek harrapatzeko beharrezko tresneria eta baita bizilekuak berak ere. Nekazarien soroetako lurra oro pozoituta daude, isuri likatsua batek hondatuta. Oihan asko desagertu da, zuhaitzak olio artean itota edo suteetan kiskalita. Basoetako fauna suntsitu da. Eta ororen buru delako herritarren bizi itxaropena 40 urtetaraino laburtu da.

fite milioi tonako izugarrikeriara iritsiko dena.

Tona horiek eta gehiago dira mende erdi honetan Nigeriako padura, oihan eta soroetan Shell eta beste multinazional batzuek isuri dituztenak. Baina nekez sartuko dira inongo zerrendatan. John Vidalek idatzi duenez "Ezin dira zehazki neurtu urtean Nigerreko deltan hedatutako petrolio kopuruak, arreta handia jartzen dutelako petrolio ekoizleek bezala gobernuak informaziorik jakin ez dadin".

Petrolio kutsaduran txapeldun

Honela ekiten dio kronikari John Vidalek: "Marea beltzaren ertzerira iritsi gara, Otuegwe herrixka inguruan, manioka soroen artean luzaz ibilita. Ikusi baino askoz lehenago usaindu dugu petrolio. Garajeko edo landare ustelen kiratsaren tankera batek kutsatzen du airea. Gero eta jasangaitzakoa da sunda. Laster ginen sartuta olio arin nigeriarrean, munduko onena bera. Berrogei urteotan Nigerren delta inbaditu duten ehundaka hodiak herdoilak janik daude eta horietako bat urte betez goiti egon da isuritzen. Basoak eta alorrak olio geruza distiratsu batek estali ditu. Edateko ura zeukaten putzuak kutsatu dituzte. 'Oro galdu dugu, sare, txabola, nasa...' aitortu du Promisek, gidari lanak



egiten dizkigun Otuegweko buruzagiak. 'Arrantzatik eta nekazaritzatik bizi ginen. Oihana galdu dugu. Shelli jakinarazi genion jarioa gertatu zen egunean bertan, baina hila-bete luzez konpainiak ez du deus mugitu'.

*The Guardian*eko kazetaria Nigerian zegoen egunetan hiru marea beltz gertatu ziren. Maiatzaren 1ean Akwa Ibom estatuan ExxonMobil konpainiaren hodi handi bat lehertu zen eta zazpigarren egunean kontrolatu zuten bitartean lau milioi litroz estali zituen inguru guztiak. Bertako agintariak 800 milioi euroko kalte ordainak eskatu dituzte, baina protestan joandako herritarrek ez dute kobratu guardiek emandako jipoiak besterik.

Egun gutxi beranduago, handik hurbil, matxino armatuek Shellen *Trans Niger* hodia kolpatu zuten, beste olio jario handi bat eraginez. Pare bat egun geroago bi olio orbain handi azaldu ziren bata Bayelsa estatuko Adibawa lakuan eta bestea Ogonilanden.

Ibeno herrixkako buruzagi Williams Mkpa-k adierazi dio kazetariari: "Konpainiek akabatu nahi gaituzte. Bi urtetan hamar marea beltz nozitu ditugu eta arrantzaleek ezin dituzte beren familiak mantendu".

Ben Ikari izeneko idazle batek dio *Deepwater Horizon*ekin gertatzen ari dena ia eten gabe jazotzen dela Nigerren deltan. Legegileak fütitzen dira arazoaz eta lekuko jendeek ahal bezala bizi behar dute kutsadu-

raren erdian. "Egoera gaur okerragoa da duela 30 urte baino".

Kazetariak galdeturik, Shelleko arduradunek oso bestelako ikuspegi eskaintzen dute. Hauei sinestekotan, oso urriak dira azpiegituren hutsegiteengatik suertatzen diren kutsadurak, aldiz isuriaren %98 militante armatuen erasoek, bandalismoak eta herritarren lapurretek eragiten dituzte. Oleodukto bakar batean aurkitu izan omen dituzte lapurretarako zulatutako 300 iturri baino gehiago. Hori gutxi balitz, sarritan herrietako biztanleek ez omen diete konpainiaren teknikariei uzten bertara joan eta konpontzen.

Friends of the Earth International erakundeko ordezkari Nmimo Bassey-k korporazioak gezurretan ari direla salatu du, eta lortzen duela mundua Nigeriako hondamendiaz ez jabetzea. "Hemen multinazionalak arazoari ixkin egiten diote, jendearen bizimodua eta ingurumena hondatuz. Mexikoko Golkoko marea beltza da Nigeriako eta Afrikako beste leku batzuetako petrolio eremuetan egunero gertatzen denaren metafora".

Urtean 300 marea beltz baino gehiago zenbatzen dituzte Nigerren deltan. Estatua eta konpainia handiek lortu dute eremuotako kutsadura izugarri handia normaltzat joa izan dadin, eta edozein lege aurrerazale blokatutik geratzen da.

John Vidalen iritzian, Niger ibaia- ren delta petrolio kutsaduraren munduko hiriburua da. Hemen herritarren erdiak galdu du edateko ur ona lortzeko modua eta bi belaunalditan erriberotako jendeen bizi itxaropena 40 urteraino hondoratu da. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Garbine Ubeda Goikoetxea

Tircpihmi

Politika behin betirako baztertuko nuela zin egin nion nire buruari, ez nuela, nire osasuna zaintze alde, gai horren haritik notizia erdirik ere segituko, horretarako 1.000 eurotik gora pagatutako telebista hautsi beharko banuen ere. Politikariak —agintariak, oro har— hitzetik hortzera darabilten hizkera ulertzeko arazo larriak nituelako, datu objektiboen interpretazioan erakusten duten fantasia Lewis Carrollena baino aldrebesagoa egiten zitzaidalako, keinu bidezko lengoiaia sasiagerikoa ezta musean ere ikasi ez dudalako, horren guztiaren ahaleginean nire kortex zerebral zurrinak irakin egiten zuelako, gainera merke-zuhurreko ardoak baino biharamun latzagoak uzten zizkidalako eta, har dezadan arnas, finean tuntun eta arlote sentitzen hasi nintzelako, afizio apalagoak, nire ahalmen intelektualari aproposagoak zaizkionak, bilatzen hasi nintzen.

Une gogorra izan zen hura, aitortzen dut. Delirium tremens ikaragarriak heldu zitzaizkidan erabakiaren ondotik. Telebista kateetako *Reality*ek, futbolak, Steven Seagalen filmeek ere ezin izan zuten haren hutsunea bete. Iritzi-artikuluatarako gaiak agortu zitzaizkidan. Euskadi Irratiko tertuliak entzuteari uko egin nion. Koadrilako afarietan postrea atera orduko ihes egiten hasi behar izan nuen. U2 eta Shakiraren jarraitzaile bihurtu beste erremediorik ez nuen izan.

Baina heldu zen eguna. Heldu zen askatasun konpletoa, tentaldirik tematienari ere ezezko biribila esateko kemena atera nuenekoa, pasibotik aktibora pasa eta politikarik gabeko espazioak aldarrikatzeari ekin nionekoa. Eta orduantxe, justuki une horren bueltan, agertu zitzaidan Arantzazuko Ama Birjina. Eta politika gaietarako itsutasuna sendatzeaz gainera, arranoaren bista eman zidan aluak, ikusmen panoramiko-paraboliko-erradiografikoa. Supituan konprenitu nuen Egia: politikariak gizaki itxurako izaki humanoideak dira, hominidoen eboluzioan ezagutzen ez zen adar batetik garatutako espezie kamaleoniko aurreratua, kukuak egin ohi duen bezala, arrautzak



DANI BLANCO

egin ohi duen bezala, arrautzak besteen habiatan jarriz hedatu dena.

Big Bang-aren aztarnak bilatzeari utzi eta errebelazio hura ikertzea deszifratzea gizarteratzea izango zen aurrerantzean, nire misioa. Laguntzaile taldea bildu eta I+G+I zentro independente bat sortu genuen: TIRCPIHMI, *The International Reserch Center of Politic Invasion and Human Molecular Immunology*. Politikarien izaera hegemonikoa, ohiturak, jokamoldeak eta puntu esanguratsuak katalogatzea da TIRCPIHMIren epe motzeko xedea; hitz klabeak manipulatzeko eta hitzegi ofizialtan adiera berriak inposatzeko duten artea xehekatzea; gezurrak aitortzeko edota damua sentitzeko duten ezintasun intrinsekoa ikertzea; ahalguztidunaren gisan jokatzeko, beti hordagoka aritzeko dituzten dohainen kodea argitzea eta, ahal dela, manipulazio genetikoaren bidez edo, gizakiontzako txertoak erdiestea. Erronka bizia, zinez.




Supituan konprenitu nuen Egia: politikariak gizaki itxurako izaki humanoideak dira, hominidoen eboluzioan ezagutzen ez zen adar batetik garatutako espezie kamaleoniko aurreratua, kukuak egin ohi duen bezala, arrautzak besteen habiatan jarriz hedatu dena



TIRCPIHMIk, esan gabe doa, ez du instituzio nagusien diru-laguntzarik jaso. Ez du Zamudioko Parke Teknologikoan egoitzarik lortu. Ez du Phisic Center-arekin eta Nanogunerekin lobbyrik osatu. Baina iritsiko da hori ere, datorren asteeko *Science et Avenir* aldizkari ospetsuan argitaratuko den artikuluan irakurri ahal izango denez. Ezagutza baita herri honen etorkizuna. ■

ASTE HONETAKO zozketa



Ugarte Nekazal Turismoa

Asteburu pasa
2 lagunentzat

Asteasu GIPUZKOA
www.casariougarte.com

1



Tarpoon Urpekaritza

2 harpidedunentzat
"Discover Scuba" saiorako
bina sarrera

Kirol portua, A lokala - 7
Getxo BIZKAIA

www.divetarpoon.com

2



Bilboko Euskal Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo, BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3



Chillida-Leku Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Bisitaldiarako epea: hilabete bat

Jauregi auzoa, 66
Hernani GIPUZKOA

www.museochillidaleku.com

4



Bilbo Samurai Fernando Morillo 5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea

Navaz y Vides kalea 1
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2234. Argia)

ONDARRE

- Jesus Mari Kerejeta Aldalur (Urretxu)

URKI TXAKOLINDEGIA

- Optika Zinkunegi (Donostia)

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

- Getxoko Euskara Zerbitzua (Getxo)
- Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga)
- Jon Caballero Gomez (Irun)
- Maddalen San Miguel Otegi (Zaldibia)

Off-on

- Luis Mari Telleria Lezeta (Segura)
- Arantza Egibar Arieta-Araunabeña (Bergara)
- Jabier Agirre Lasarte (Donostia)
- Joxe Mari Lasa Goenaga (Zarautz)
- Andoni Sarriegi Eskisabel (Beasain)

ESAIT

- Fray Juan de Zumarraga Institutoa (Durango)
- Aitor Sangroniz Akarregi (Santurtzi)

* Bisitaldiarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

Egin zure apustua...

... eta irabaz ezazu honako sari bikain hauetako bat!



1.

EROSKI/viajes

KARIBERA BIDAIA

Bi lagunentzat.
9 egun-7 gau.
Gastu guztiak ordainduta.
Behe-denboraldian.

2.

EROSKI/viajes

COSTA DORADAN EGONALDIA + ORBEA markako BIZIKLETA BAT

Bi lagunentzat. 8 egun-7 gau.
Mantenu erdian. Behe-denboraldian.
Bizikletaren modeloa: Aqua T23 10 54 NEG-NAR.

ORBEA

3.

EROSKI/viajes

COSTA DORADAN EGONALDIA + ASTORE txekea

Bi lagunentzat. 8 egun-7 gau.
Mantenu erdian.
Behe-denboraldian.

ASTORE

4.

EROSKI/viajes

COSTA DORADAN EGONALDIA

Bi lagunentzat.
8 egun-7 gau.
Mantenu erdian.
Behe-denboraldian.

5.

EROSKI/viajes

COSTA DORADAN EGONALDIA

Bi lagunentzat.
8 egun-7 gau.
Mantenu erdian.
Behe-denboraldian.

6.

EROSKI/viajes

COSTA DORADAN EGONALDIA

Bi lagunentzat
8 egun-7 gau.
Mantenu erdian.
Behe-denboraldian.

7.

ASTORE

ASTORE TXEKEA

ASTORE kiroletako arropa
erosteko txekea.



EGUNERO ETXEONDO

markako txirrindulari maillota.

... UZTAILAREN 7AN PARTAIDEEN ARTEAN ZOKKETATUKO DIREN SARIAK

EROSKI/viajes

10 EGONALDI
bi lagunentzako,
Asturiaseko edo
Kantabriako
landa-etxeetan:
3 egun -2 gau.
Ostatua eta gosaria,
behe-denboraldian.



25 camisetas,
cortesia
de la casa
Behigorri.

Ekainaren 25etik

Aurrera egizu zure apustua
SMS edo www.garatour.com
webgunearen bidez".

Horretarako jarrai itzazu 24etik aurrera
GARAn iragarriko diren jarraibideak.

Egin zure apustua!

GARA



infozazpi **GARA**

...eta INFO7ren ETA GARAREN
LANKIDETZARI ESKER ENTZUN AHAL
IZANGO DUGUN IRRATSAIOAN GARAREN
txirrindulari maillotak zozketagai!

